





elgo



Agur 1995ari!



M A P F R E

ASEGURU ETXEA

Jai zoriontsuak elgoibatar guztioi!

San Frantzisko 40 - ☎ 74 05 82 - 20870 ELGOIBAR

**Elgoibarko Udalak Jai zoriontsuak
opa dizkizue herritar guztioi**

**Urte Zaharra
ondo bukatu
eta Berria
hobeto hasi**



ELGOIBARKO UDALA

ESKAINTZA FORMA 96-97 IKAST

2 URTETAKO HEZIKETA MODULU EXP

- Fabrikazio mekaniko p
D

- Mekanizazio t
Fa

- Industrial ekipamenduan
Sistema eta makina automatika

**HEZIKETA
IRAUNKORRA**

**POSGRADOKO
KURTSOAK**



**Prestakun
aurrez
Gabon**

L

hizkuntz ikastaro trinkoak
arratsaldeko ikastaroak

Gehon Zoriontsuak eta Urte Berri On

1996an

Merry Christmas and Happy New Year

Alemana
Ingelesa
Frantsesa

Joyeux Noël et Bonne Année

nes Jahr

pneumax




ABENDUAK 23
egun osoa zabalik

*1996an suertarik hoberena
oparidizuegu guztioi.
Dorion eta urte Berri On!*

San Frantzisko 19 ☎ 74 42 13

LARRANAGA autoeskola

Santa Ana II. ☎ 74 10 11 - ELGOIBAR



*Ondo pasa
Gabon jaiak eta
Urte Berri On
LARRAÑAGA
autoeskolaren izenean*

**Gazte txartelarekin
%10eko BEHERAPENA
izena ematerakoan**

elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementería.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegí, Andres

Alberdi, Esteban Antxustegi,

Pello Arrieta, Felix

Arrizabalaga, Mikel Artola,

Izaskun Elizburu, Jon Etxabe,

Jon Eugi, Ina Garagarza,

Joseba Gorosabel, Lorea

Gorostiaga, Amaia

Gorostiza, Xabier Gorriti,

Ana Igartua, Maite Iriondo,

KOKOE, Joseba Konde,

Eduarne Korta, Imanol

Larrañaga, Javi León,

Antonio Matias, Susana

Mujika, Maite Solozabal,

Karmelo Urdangarin, Julen

Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



BARRENen 3. urteurrena

BARRENek hiru urte beteko ditu Eguberri hauetan. Hiru urte luze. Denok dugu gogoan gure herriko astekaria jaio zen eguna eta urtea. Eta gezurra badirudi ere, ordudanik hiru urte joan dira jada. Atzo bertan izan zela iruditu arren, denbora dexente pasa da harez geroztik. Hiru urte ez da, ez, epe laburra.

ELGOIBARREN astekaria lehenago sortutako beste aldizkari batzuk zituen eskualdean sortu zen, haien artean ARRASATE PRESS, BERRIGARA edo ...ETA KITTO! Aurreko haiei beste berri bat gehitu zitzairen. Ilusioa handia zen eta herritarrei informazioa euskaraz eta txukun emateko nahia ez zen txikiagoa. Ahalegina ez zen alferrikakoa izan eta fruituak nabariak dira gaur egunean: BARRENek dituen irakurleak eta eskualdeko gainontzeko astekariak dituztenak batuta, Deba aldea da Euskal Herrian euskarazko herri prentsaren irakurle gehien biltzen dituen zonaldea, oker ez banago.


Hiru urte hauetan gure herriko astekaria osatu eta hobetu egin da. Hasieran gutxi gora-behera besteen eredua segitzen zuen. Baina apurka-apurka denboran zehar berikuntzak sartuz edo gehigarri berriak asmatuz, osoagoa bihurtu da. Izan ere, ez dute lan makala egiten beronen egileek. Egia da,

(hau ia ziur esan daiteke), ostiralero herri guztia BARREN bere etxera noiz helduko zain egoten dela. Baina horrekin batera, inoiz ikusi edo entzun izan dut beste hau ere gertatzen dela: aldizkaria jaso, begirada azkar bat eman eta berehala esatea: "BARRENek ez dakar ezer aste honetan", (ez dakarrela irakurtzeko ezer interesgarririk esan nahi da, jakina). Ba, niri ez zait hori egokia iruditzen. Ez du erraza izan behar astero-astero halako aldizkari bat egiteak eta, beraz, uste dut egileen lana aintzakotzat hartu behar dela beti, sartzen dituzten ordu guztiak ahaztu gabe.

Dena dela, ukaezina dena zera da: BARRENek zeregin garantzitsu askoa betetzen duela gure herrian. Gizarte modernoetan komunikabideak beren funtzionamenduaren zutabeetako bat direla aitortzen da. Nik esango nuke, herri mailan BARRENek horrelako zerbait izatea lortu duela: gure herriaren iharduera normalean ardatz bat bihurtu da. Ospatzekoa dugu beraz elgoibartarrok BARRENen 3. urteurrena. Beste asko bete ditzala opa diogu datozen urteetako Eguberrietan. Bien bitartean denok ondo pasa aurtengo Gabon jaiak.

Jon Eugi

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Urtia baserriaren gain aldean antena bat dago. Zertarako da?

Udaletxean esan digutenez, antena hori telefonikak jarritakoa da, telefono zerbitzua hobetzeko helburuarekin.



KEXAK

- "15-16 urteko 20 bat neska-mutil gara eta ez zaigu batere egokia iruditzen azterketa astean Udal Liburutegia txotxongilo emanaldietarako erabiltzea. Zertarako dago Herriko Antzokia? Bestalde, Liburutegiko mahaiak 4 lagunentzat badira, zergatik derrigortzen gaituzte bi bakarrik esertzera? Taldekako lanak non egin behar ditugu?"

- Institutuko guraso batek deitu digu, abenduaren 19an aipatu ikastetxean HIESari buruz antolatutako hitzaldira 40 guraso baino joan ez zirela salatzen. Gaiak duen garrantzia eta 1.000 guraso inguruk gonbidapen pertsonala jaso zuela kontuan izanik, benetan asistentzia kaskarra iruditzen zaio. Eskerrak joan zirenak gustura irten ziren, hitzaldia benetan aproposa izan baitzen.



TXALOKAK

Irakurle batek deitu digu Elgoibar eta San Migel bitartean dauden pinadiak benetan txukun daudela esateko. Bere esanetan, gustukoa da pinadiak horrela ikustea eta hauen jabeak eta zaindaria txalotu nahi ditu.

ESKUTITZAK

...eta kultura deskubritu nuen

Beste askotan bezala, kasualitatez, Kultur Etxe paretik pasa nintzen joan den astean. Orain arte, beti beste arrazoiren batek bultzatuta sartu izan naiz herriko etxe dotore horretara baina lehengo egunean, erakusketa gelara hurreratzea okurritu zitzaidan. Eta hala egin. Sartu eta hara non aurkitzen ditudan Luziano pintore elgoibartar ezagunaren koadroak.

Bata bestearen atzetik ikusten hasi eta zein baino zein harrigarriagoa iruditu zitzaidan, bereziak, distantzia batetik begiratu eta mundu oso bat isladatzen duten horietakoak. Sekula ez naiz erakusketa horien zalea izan, beharbada inoiz ez naizelako gerturatu ere egin. Zergatik? Ez dakit, beste askok bezala. Gero, herrian gauza interesgarriak ez dagoela esaten dugu han hemenka. Eta ez gara konturatzen, hiriburuetan ezezik Elgoibar bezalako herri txikietan ere izaten dela kultur ikuskizunik, guk uste baino sarriago gainera. Horiek aprobetxatu

eta horietaz gozatu beharra dago.

Nik behintzat, aurrerantzean Kultur Etxeko erakusketa gelan argia ikusten dudan bakoitzean, sartzeko asmoa daukat. Ziur ikasteko asko aurkituko dudala.

J.A.M



OHARRA:

DATORREN ASTEAN EZ DA ALERIK EGONGO.

BARREN egiten dugun guttion izenean Gabon Zoriontsuak eta Urte Berri On opa dizuegu irakurle guztioi. Errege bezperan, urtarilaren 5ean, itzuliko gara ale berri batekin. Ordura arte, ondo izan!

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratu Kontxa Azkuek lagatakoa da. Fin erantzun dio emakume honek BARRE-Nek egindako erretratu eskariari. Mila esker Kontxa.

Erretratua 1927aren bueltan aterako dago, non eta Txinan. Foochow izeneko herrirka batean azaltzen zaigu Aita Agirre bertako hiru kristaurekin. Kontxak esan digunez, Aita Agirrek Txinan pasa zuen ia bizitza guztia misiolari. Hil ere, bertan hil omen zen. Aita Agirre misiolari dominikarra zen. Elgoibartar honen oroimenez ditugu Aita Agirre plaza eta, duela gutxi arte, izen bereko ikastetxea.

ZELETA Barazkiak

*Sagar mota desberdinetan, madariak, kiwiak,
babarruna, ... baba, ...*



*...do pasa
...son Jaiak!*


% 100 bertako produktua

*BETIKO DENDETAN
AURKITUKO DITUZU.*

ZELETA BASERRIA 74 30 22 ELGOIBAR



Andres Osoro GARRAIOAK



Santa Ana 32-1E
ELGOIBAR
Tel. 74 36 27
Mobila 908 67 18 82



ZORIONAK ETA URTE BERRI



ARANBARRI

GRUA ETA PLATAFORMADUN GARRAIOA

Elgoibartar gurtioi Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu

Tel. 74 02 42 Tel. Mugikorra 908-77 06 37 ELGOIBAR



PATXI harategia

Ondo pasa Gabon jaiak!



San Bartolome, 30 * Tel. 74 35 04 * ELGOIBAR



Zigor Esnaola, 23.
Fabrikazio Teknikaria



Patxi Etxeberria, 27.
Injineru Teknikoa



Myriam Aldazabal, 26.
Publizista



Ismene Fulgencio, 24.
Langabetua

1.000



ELGOIBARKO IZARRA Elkartearen BAZKIDE KANPAINA



Jon Barandiaran, 25.
Marketing Teknikaria



Garbiñe Gorostiaga, 25.
Injineru Teknikoa

Elgoibarko GAZTERIARI zuzenduriko

MANIFESTUA (II)


(...)

Seguru gaude zu ere euskalduna zaitugula eta euskararen aldeko hamaika ekimenetan parte hartutakoa zarela. Manifestu hau euskararen aldeko sentimendu hori elkarte egitura eta antolatuan azaltzeko gonbidapena da. Euskaldun izateko daukazun gogo hori, zu bezala sentitzen duten gainontzeko gazteekin konpartitzeko eta aberasteko proposamena. Azken finean, egun sakabanatuta dauden sentimenduak eta ideiak bateratu eta indarrean jartzea da gure desioa.

Eta oraingoz aukera hoberik ezagutzen ez dugunez, guk **Elgoibarko Izarra Elkartearen** aldeko apostua egin dugu. Elgoibarren 32 urtean euskararen eta euskaldunon biziaren alde lan ugari egin duen Elkartea izanik, konfidantza osoa eskaintzen digu eta protagonista izan nahi dugu bere etorkizunean. Izan ere, halakoren batean Elgoibarren euskararen bizitza ziurtatzen badugu, gu ere han izan ginela pentsatzeak satisfazioz beteko gaitu.

Manifestu hau euskara maite dugun gazteok (...)

(Jarraituko du)



ELGOIBARKO ALBAITARITZA KLINIKA

ANIMALIA TXIKIETAN ESPEZIALIZATUAK



ORDUTEGIA:


Goizez: 11,00-13,30

Arratsaldez: 16,30-20,00

Larunbatak: 11,00-13,30

*Gabon zoriontuak
pasa eta
Urte Berri On!*

**San Roke, 26 (Estazio gainean) ELGOIBAR
TEL. 74 07 04 Larrialdiak 908 87 39 40**



BERISTAIN

EDARI BANATZAILEA

Iñaki ☎ 74 38 27



RAM



Zorionak eta Urte Berri On!!

Zein da Gabonetako egunik politena?



MARIA REBOLLO

43 urte, etxeoandrea

Gabon gaua. Familia guztia elkartzen gara eta nerretzat egunik politena izaten da. Gabon Zahar eguna tristeagoa da gazteek kalera alde egiten dute eta.



AINHOA URIBETXEBERRIA

8 urte, ikaslea

Gabon Zaharra, afarixa eta bazkarixa gozua izaten dalako. Eta Errege eguna ere gustatzen jata Olentzerruetan baino erregalo gehixo jasotzen ditzutela.



MERTXE ROS

41 urte, idazkaria

Gabon Zahar gaua eta Urte Berri eguna, alaie-nak dira. Gabon eguna tristeagoa iruditzen zait familian pertsona asko falta zaizkidalako.



KOLDO LEIBAR

52 urte, irakaslea

Gabon eguna, urtean zehar familia osoa elkartzen geran egun bakarra izaten dalako. Gabon Zahar egunean ez zait atarzea gustatzen.



ANTONIO PEREZ

37 urte, trokelista


Gabon Zahar gaua. Urteko azken eguna da eta hori ondo ospatu behar da kalera irten eta parrandaxo bat eginez. Beste egunek ez dute esanahi handirik niretzat.



JOSE LUIS URIJA

22 urte, ikaslea

Gabon Zahar gaua, martxa asko egoten dalako eta lagunekin atera eta juerga egitea gustatzen zaidalako. Familiako giroa ere gustatzen zait.



INLOZU, C.B.

KROMATUAK ETA PABONATUAK

- Leguntzeak
- Nikeldura eta margotze disdiratsuak
- Margo ilunetan adituak
- Labean sikaturiko pinturak (zimurgarriak, etab...)
- Pintura ixurketak (ugar kentzea, garbiketak eta piezen margoketa)

Gabon Jai

P. Muguruza Etorbidea, 14- ☎ 74 16 31-ELGOIBAR

Biak

ileapaindegia

*Gabon
Zoriontsuak
eta
Urte Berri On!*

San Inazio 4, Tel. 74 27 25

PUBLIZITATEA



**KAROBI
PUB**
ELGOIBAR

San Frantzisko, 35 . Tel. 74 06 38

okindegia eta gozotegia



Urte Berri On!

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR



GOZOTEGIA
*...entzaren
artisaauak gara*

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45



**HERRI-
GAIN**

ERRETEGIA
San Pedro auzoa 4
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR



**GAZTEENTZAKO
MODA**

*Gabon alai eta
zoriontsuak opa
dizkizuegu herritar
guztioi.*

ARMUETA



**Isabel
Ormazabal**

Harategia Urdaitegia

*Gabon jai zoriontsuak opa
dizkizuegu elgoibartarroi!*

San Bartolome, 16. Tel: 74 06 40



Urrezko-etzaiak egin dituzten herriko bikoteak dira hauek. Jubilatuen Egoitzak 9 bikote omendu zituen joan den ostiralean: Narciso Ibañez eta Maria Garagarza, Antonio Salazar eta Antonia Molinuevo, Ladislao Elorza eta Juana Arrieta, Joaquin Rezola eta Bibiana Garmendia, Ramon Ansola eta Imelda San Martin, Martin Amutxastegi eta Dolores Astigarraga, Santiago Osoro eta Juana Loiola, Ladislao Iñiguez eta Pilar Zabaleta eta Ignacio Bereziartua eta Ana Etxeberria. Eguna ondo baino hobeto pasatzeko omenduek eta 80 urteko herriko jubilatuek jaki ederrak dastatzeko aukera izan zuten katekistek prestatuko bazkariarekin.



AITOR ZABALA

San Migeleko pilota txapelketako finalak jokatu zire iragandako asteburua. Argazkian lehen mailako irabazleak eta bigarren geratu zirenak ditugu. Agirrebeña eta Loidi txapeldunak eta Beraza eta Gabilondo txapeldunordeak (22-18). Bigarren mailan Urtubia eta Osoro bikotea nagusitu zen 22 eta 11 tantutara Urrategi eta Murua bikotearen aurka. Txapelktan 33 bikotek hartu zuten parte guztira.

■ Bandaren Gabonetako kontzertua eta kalejira

Udal Musika Bandak Gabonetako kontzertu berezia eskainiko du Gabon egunean, hilak 24, Herriko Antzokian eguerdiko 12,30etatik aurrera. "Arraunlariak", "Semiramis", "Misty", Euskera" eta "A Christmas dance party" obrak joko dituzte Jose Antonio Osorok zuzenduta. Arratsaldeko 7ak laurden gutxitan, Gabonetako kalejira tradizionalaren 111. edizioan Gabon ikutua jarriko du Bandak. Plaza Handitik irtengo dira; Kultur Etxe parean eta amaieran Plaza Handian, geldiuneak egingo dituzte, Gabon kantak joaz. Hurrengo joaldia urtarrilaren 6koa izango dute. Errege egunean hiru ekitaldi izango dituzte, lehenengo kalejira, ondoren San Lazaro egoitzan emanaldia eta azkenik, kontzertua Herriko Antzokian.

■ Gabon Zahar feria hilaren 30ean

Udalak antolatzen duen urteko azken sapatuko ferian, Gabon Zahar ferian alegia, ohiko saltokiez gain, Goiko Errota elkartearen eskutik, XIV. Gazta Lehiaketa burutuko da. Goizeko 9etan trikitilarien kalejira izango da, eta eguerdiko 1,30etan gazta lehiaketaren sari banaketa. Arratsaldean trikitilariak jardungo dute kaleetan zehar eta Setan herri kirolak izango dira. Iluntzeko 6,30etan eliz abesbatzak kalean abestuko du eta gaueko 22,30etan Egaña, Lizaso, Sarasua eta Peñagarikanoren bertso jarduna izango da Herriko Antzokian elgoibarko Izarrak antolatuta.

DAMKAR'T

Ileapaindegi eta estetika eskola

Zorionak eta Urte Berri On!

Bittor Sarasketa 7-3. Tel: 12 15 18 **EIBAR**

ESTAZIO TABERNA

••• SUPERMERKATUA •••

Zorionak!

San Inazio, 5 - ☎ 74 03 92

■ Ipuin dramatizazioa Taupadaren eskutik

Irakurtzeko zaletasuna bultzatu eta arreta eta irudimena indartzeko Udal Liburutegia burutzen ari den kanpainaren barruan, ipuin baten dramatizazioa antzeztuko du Taupada antzeztaldeak. Urtarrilaren 3an, goizeko 11etan Udal Liburutegian G. Rodariren “Terribilis doktorea” ipuina antzeztuko dute. Haurrek dramatizazioa ikusi ondoren, taldeka bildu eta idazleak proposatzen dituen hiru bukaera posibleetatik bat aukeratu eta nahi duten eran azalduko dute.

■ Intsumituen aldeko Plataformaren bilera

Datorren asteazkenean, hilak 27, eratu berri den Intsumituen aldeko plataformaren talde eragilearen lehen bilera izango da, arratsaldeko 8etan Kultur Etxean. Bileran plataformaren urteko plangintza zehaztuko da, besteak beste. Interesatu guztiak bertara hurbildu eta parte hartze-ara gonbidatuak daude.

■ Parroki abesbatza

Parroki abesbatzak bi zatitan banatutako kontzertua eskainiko du hilaren 23an, arratsaldeko 8etan. San Bartolome parrokian izango da ekitaldia Laura Bilbaok zuzenduta. Hamabi pieza kantatuko dituzte, tartean Gabon kanta ezagunak.

■ Hankaluzeen ikastaroa

Kukuma eta Taupada antzeztaldeetako kideek hankaluze ikastaroa eman go dute hilaren 26tik 29ra bitartean. Taupadaren egoitzan izango dira klaseak goizeko 11etatik 13ak arte. Hankaluzeen ezagupena eta erabilera, oreka nola gorde zolu mota ezberdinetan, hanka bakarrean ibiltzea, altuera ezberdinetatik salto egitea eta korrika egitea izango irakatsiko dituztenak, besteak beste. Informazio gehiago jasotzeko 74 36 55 (Taupada) edo 74 04 78 (Jose Mari) zenbakietara deitu.

Mugimenduzko hogeita zazpi irudi ditu aurten Jaiotzak



Gaurtik hasita, hilak 22, San Anton egunera arte Parrokiko Jaiotzaren Batzordeak muntatzen duen Jaiotza paregabea ikusgai egongo da Leku Eder-eko parkeko lokalean. 27 irudi dira mugimendua dutenak eta hauez gain, ehun inguru geldirik daude, artzaiak, bisitariak, okina, emakumeak garbitzen etab. Aurtengo berrikuntzarik garrantzitsuenetarikoa jaiotza alderik alde gurutzatzen duen erreka da, arrain gorrixkak dituen. 55 metro karrautuko plataforma baten gainean erakita, bi hilabete lehenago hasi ziren muntaia lanetan. Urte osoko lanaren fruitu da, puntako teknologia erabiltzen dutelarik. Argien eta

mugimenduen koordinaziorako 3.000 metro kable behar ditu Jaiotzak. Dena dago ongi neurtua eta sinkronizatua, detailerik txikiena ere bai. Tximinietatik eta suetatik kea irteten da. Bomba batek, gori-gori dauden erresistentzia batzuetan erretzen den olio bidaltzen du etengabe. Egunaren eta gauaren zikloak 8 minutu irauten ditu, egunsentia, eguerdia, arrastia eta gaua ondo bereizturik daudelarik. Bisitarako ordutegia 17,30etatik 20,30ak bitartekoa da lanegunetan eta goizeko 10,30etatik 13,30etara eta 17,30etatik 20,30etara bitartean jaiegunetan eta jai bezperatan.



Egunkariaren tonbolako 100.000 ptako bigarren saria tokatu da Elgoibarren. Oraingoan Fermin Arce izan da zorteduna, eta boletoa Jai-Alai tabernan erosi zuen. Diskak, boligrafoak eta horrelakoak tokatu izan zaizkio inoiz, baina “horrelakorik sekula ez”. Momentuz Gabon jai ederrak pasatuko dituzte eta semeari, Olentzeroren oparigisa, bizikleta agindu omen dio aitak.



Berria

**ARGI BIRAKOIEN
ERROTULU MUGIKORRAK**

- ERROTULUEN DISEINUA ETA FABRIKAZIOA
- BARRUKO ETA KANPOKO SEINALIZAZIOA
- ERROTULAZIOA-SERIGRAFIA

Zorionak eta Urte Berri On!

Olaso Industrialdea 15 - 55A
20870 ELGOIBAR

Tel. 74 39 52 - 74 37 06
FAX. 74 39 51

Garajeak **salgai** San Roke 12-14an



**INFORMAZIOA
ETA SALMENTA:**

Ubitarte 2, behea
Tel. 74 13 33
ELGOIBAR

*Zorionak eta
Urte Berri On!*

ALDERDIPOPULARRAren izenean

Zorionak eta Urte Berri On!



Jabier Garate:

“Sukaldaritza oso lan lotua da”

Elgoibarren jaio zen orain 30 urte. Gure artera dakarri izanaren arrazoia, Plazentziako Esozia auzoan dagoen izen berko jatetxeko jabea izatea da.

Leioan egin zituen sukaldaritza ikasketak eta zenbait jatetxetan lanean aritu ondoren, duela lau urte irki zuen berea duen jatetxea.

- Nola bururatu zitzazun sukaldari izatea?

- Ikasten nengoela, artean hirugarren promoziokoa nintzen oraindik, lan interesgarria eta irtenbide handia zuena zela ikusi nuen.

- Noiztik diharduzu lan honetan?

- Ikasten nengoela, tarteka udan lan egiten hasi nintzen lehenengo urtetik. Nire lehenengo lana Auzo Lagunen izan zen. Bigarren urtean Mutrikun egon nintzen, Jarri Tokin, bertan arrainei eta kostaldeko plateri buruz zerbait gehiago ikasiz. Ondoren Donostian hiru hilabete laburretan aritu nintzen. Gero Mallabiko erretegi batean sukaldeko jefe gisara egon nintzen ia hiru urtez. Handik Oñatiko Etxe Haundira joan nintzen sukaldaritza berria piskat ikasi eta lantzerara. Bertan urtebete inguru egin ondoren, merendero bat zena berriztu eta jatetxe berezi bat eratu genuen eta jadanik lau urte daromatzat hemen.

- Entzun izan da jatetxeen jabeak sukaldari konsagratuen esku egon ohi direla. Nola ikusen duzu zeure burua?

- Sukaldaritza oso lan lotua da. Ahal izanez gero gauzak norbere gustura egitea nahi izaten da,



“Eskatu didaten platerik bitxiena, tripakiekin egindako ensalada izan da”

horregatik behin gauzak ongi egiten dituzunean edo zure burua ziur ikustean, saiatu ohi zara gauzak zuretzat egiten. Horregatik nabarmentzen da salto hori, sukaldari xumeetatik konsagratuenera dagoena alegia.

- Zeintzuk dira zure jatetxeko berezitasunak?

- Gehienbat arrainak eta etxeko postreaak. Izoziak eta postreak etxean egiten ditugu. Nahiz eta izena lortzea edo ezagun egitea kostatu bada jendea hori eskatzera etortzen dena edo piskanaka behintzat hemengo bidea ikasten ari dena.

- Zein da jatetxean eskatu dizuten platerik arraroena?

- Amerikan egondako artzai bat etorri zen eta eskatu zidana arraroa zenez, tripakiekin egindako ensalada bat prestatu behar izan nuen. Astakeri bat egiten ari nintzela uste arren, oso ona zegoela esan zuen.

- Zergatik uste duzu ospatzen direla gauza gehienak bazkari zein afari eder bat eginez?

- Euskaldunontzat oso garrantzitsuak direlako jatorduak. Guk euskaldunok, jatordu batetik zere- monia bat egin ohi dugu,

ez beste toki batzuetan bezala, edozer gauza edozein erataria jan eta konforme. Hemen eguneroko bazkaria izan arren, gauza seriotzat hartu ohi dugu eta mimatu egiten dugu gainera.

- Ba al da sukaldean erabiltzea gustatzen ez zaitzun produkturik?

- Bai, koloranteak. Espeziak ere ez ditut asko erabiltzen, piper hautsa eta noizbehinka oreganoa besterik ez. Izan ere, euskal sukaldaritza bestee- gandik bereizten duen ezaugarrietako bat espe- zien erabilpen urria da.

- Aurrera begira ba al duzu plan edo egitasmo berezirik?

- Negozio hau aurrera ateratzea. Jende berri eta gaztea sartu, hauei erakutsi eta neretzako denbora piska bat hartzea. Izan ere, oraingo martxan oso lan lotua da.

- Gabonetarako menu bat.

- Menu simple bat. Hasteko urdaiazpikoa, Jabugoa bada hobe. Gero langostino egosi batzuk. Oilo salda bat ondoren eta arraina, orain Urre-buru- ren sasoi denez, ba bero- ri. Postrerako errezil saga- rrak erreta, gero ere turroi eta polboroieta egoten baita nahikoa aukera.

IRATI AGIRREAZALDEGI

LEKU-EDER ETXEBIZITZAK

**ETXEAK, GARAJEAK ETA
LOKAL KOMERTZIALAK
SALGAI**

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:
Ubitarte 2 behea. Tel 74 13 33
ELGOIBAR (GIPUZKOA)



PREZIO OSO
INTERESGARRIAK

Zorionak eta Urte Berri On!



Morkaiko M. E.ak
*Gabon Zoriontsuak
opa dizkizue
elgoibartar guztioi!*

MORKAIKOrA JAIOTZA IPINTZERA
**ABENDUAK 23, larunbata
9,00etan, Plaza Handian**

AITZGORRIRA IRTEERA
**ABENDUAK 31, igandea
Goizeko 7,30etan, Plaza Handian**

Elgoibarko
EAJ-PNVk

JAI ZORIONTSUAK

*opa dizkizue herritar guztioi.
Urte Zaharra ondo bukatu eta
Berria hobeto hasi.*



PUBLIZITATEA


Itzaropena, maïtasun printza berriaz
argitasun bereziz jantzi-berri zaigu,
ZERUKO izar aunitzen irribarrea,
HAURTXOAREN etorreraz,
bake eta fereka goxoz hurbildu,
KANPAI hotsen dilin-dolon doinu gartsuak
kanten nota bateratuen oihartzunez amas-berritu,
bihotzez luza eta opa nahi dizuegu.

EGUBERRI eta
URTEBERRI ON!

ELGOIBARKO HERRI ESKOLA

JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI"



Edari Banatzailea



GURELSA



SANTA ANA 41. ☎ 74 10 41 - 74 11 32



Urtarrila



San Lazaro Egoitzak Nagusiei Eskainitako Astea antolatu zuen urtarrilaren 2tik 9ra bitartean. Dantzaldi, Bingo, txokolatada eta bazkari berezien artean, Bereziartua Musikeskolak, Plaentxi bikoteak, Udal Txistulari Bandak, Haritz Dantzari Taldeak, Musika Bandak eta Parrokiako Abesbatzak hartu zuten parte.

■ Urtarrileko lehen astean sartu zen indarrean Elgoibar, Mendaro eta Soroluzeko **farmaziek bat egiteko akordioa**. Farmazien komarkalizazioak igande arratsaldeetako, jaiegunetako eta gaueko txandei bakarrik eragiten die.

■ Urtarrileko plenoan, **zergen igoeraren aurkako 1.068 sinadura** aurkeztu ziren. Zergak %4,5 igotzea erabaki zuen Udalak.

■ **Bertso Jarrien Lehen Kantaldia** antolatu zuen urtarrilaren 14an Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek. Era honetako lehen esperientzia izan zen, eta ikuslego aldetik erabat arrakastatsua gainera. Bi bertsolarik, Xabier



Bandaren 110. urteurrena zela eta, San Anton jaietan egin zen XV. Seilu Erakusketa Musika Bandari eskainitakoa izan zen.

San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

Bando pasa Gabonak!
KAFETEGIA
74 42 65

Euski-tzek eta Mikel Mendizabalek, Alberto Iriondo elgoibartarrak pianoan lagunduta, aurrez idatzitako bertsoak kantatu zituzten.

■ **Guraso Eskolak bigarren ikasturteari ekin zion.** Aurreko urteko arrakasta ikusita, 90 gurasok eman zuten izena Hezitzen taldeko gizarte hezitzaileen laguntzaz, seme-alabekin harremanak hobetzeko asmoz.

■ **Ikastolako 8. mailako ikasleek,** Sebas Larrañaga eta Kristina García irakasleen ardurapean, Bilbao-Behobia autopistak antolatzen duen **Olentzeroren lehiaketan lehen saria** irabazi zuten.

■ Elgoibarko Izarrak maiatzeko hauteskundeetarako hautagai euskaldunen zerrendak bultzatzeko kapainari ekin zion. "**Alkate eta zinegotzien ejenplua nahi dugu**" zioen kanpainaren leloak.

■ Urtarrilaren 10ean **Ruandaren alde Euskadiko Itzulia** egin zuten bost lagun eta 22 txakurreko taldea Elgoibarren izan zen. Hilabete batean 4 milioi pta. inguru bildu zituzten, Elgoibarko Udalak 100.000 pta.ko laguntza eman zuelarik.

■ **Gazte Asanbladak** orduan kultur lehen-dakari zen **Gillermo Garateren aurka salaketa** jarri zuen Eibarko epaitegian. Prebarikazioagatik dimititzea eskatu zioten orain alkate den Gillermo Garateri.

■ **San Anton jaietan** denetik ikusteko eta entzuteko aukera izan zen. Ohiko artisautza feria ere izan zen Plaza Handian, eta BAP taldearen kontzertua Madalan.

PROTAGONISTAK



□ **Patxi Arriolak eta Dalo** txakurrak Espainiako IV. Oilagorren txapelketa irabazi zuten. Horrez gain, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelak ere lortu zituen.

□ **Joseba Etxeberriak** Sansetik Erreale-rako jauzian lehen urratsak eman zituen, Errealearekin hasi baitzen entrenatzen.

□ **Javi Leonen** "Merkealdiak al dira?" argazkiak Udal Kirol Zerbi-tzuak antolatutako Gabonetako Kuadrilarteko Txapelketako "Txankakua Argazki Rallyan" irabazi zuen.



□ **Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketan,** Bertso paperen atalean Sare Gurrutzagak, Kepa Mendikutek eta Irati Agirreazaldegik irabazi zituzten lehen sariak bakoitzak bere kategorian. Prosan berriz, Jone Olaizola, Ane Guilló eta Luzia Zubiaurre izan ziren lehen sariak.



PEDRO OSORO
urdaitegia

Gabon zoriontsuak opa dizkizuet herritar guztioi eta bereziki urtean zehar zuen konfidantza erakutsi didazuenoi.

Merkatu Plaza, 37. zbka. 74 25 36

NORFO SL.

La Estrella
ASEGURUAK

- ELKARTEEN ALDAKUNTZA ELKARTZE ETA ERAKETA.
- LAN, KONTABILITATE ETA FISKAL AHOLKULARITZA.
- ALOKATZE KONTRATUAK
- JUBILAZIOA (Pentsioak)

P. M. Urruzuno, 6. Tel: 74 31 40. Faxa: 74 41 23

Ametza
KAFETEGIA

*Gabon zoriontsuak
opa dizkizuegu
elgoibartar guztioi*



Tren istripu larri baten notizia

ekarri zigun otsaileko azken aurreko egunak. Trena bere bidetik irten zen Azitainen eta bost lagun hil ziren. Hauetatik bi elgoibartarrak ziren, Esther Irureta eta Jon Muguruza. Zauriak jasan zituzten elgoibartarrak ere bazeuden tartean: Patxi Igartua eta Araceli Txurruka senar-emaztea eta Pilar Morenza gaztea. Trenak gehiegizko abiadura zermalako gertatu omen zen istripua.



Mugerza Memorialaren 52. edizioaren irabazlea Brahim Lahlafi marrokiarra izan zen. Senior emakumezkoetan Fernanda Ribeiro portugaldarra izan zen lehena. Junior mutiletan Oscar Choren-ek irabazi zuen eta nesketan Maria Montanet-ek. Helmugan sartu zen lehen euskalduna Kamel Ziani oriotarra izan zen. Eguzki epelak lagunduta burutu zen 52. edizio honetan ez zuen elgoibartar batek ere parte hartu.



Ihauteri edo Karnabal gaua

otsailaren 25ean izan zen. Udalak Elgoibarko Izarraren esku utzi zuen mozorro lehiaketaren antolakuntza. Gorputza mozorrotu eta aurpegia margotzeaz gain, kalejirak, kontzertuak, antzerkia, dantzaldia eta beste ekitaldi mordo batekin gozatzeko aukera izan genuen elgoibartarrok.

PILAR arrandegia

*Ondo pasa Gabon Saiak
eta Urte berri On!*

San Frantzisko 30 • Tel. 74 18 35 • ELGOIBAR

USATORRE Taberna

San Antolin. Tel. 74 17 99



**Gizakia ez da lanaz
bakarrik bizi.
Ondo pasa**



EGNA
kotxe
konponketak

P. Muguruza 18. ☎ 74 01 98

■ **Santa Agedako koruak** kantura atera ziren otsailaren 4an. Lau koplari omendu zituzten: Patxi Iriondo, Felix Juaristi, Rafael Areitourtena eta Jose Kruzelegi. Etxegiñak sortutako koruaz gain, Elgoibarko Izarraren koplari taldeak ere baserriz baserri aritu ziren.

■ Otsailaren 8an **Iñigo Astigarra eta Ander Alkorta intsumitu elgoibartarrak** epaitu zituzten Donostiako Auzitegian. Otsailaren 28an, berriz, **Abel Irizarri** tokatu zitzaion epailearen aurrera agertzea.

■ Otsailean hasi ziren **Sigmatik Maltzagarainoko zatian**, 634 errepide nazionala **konpontzeko lanak**. Galdiano enpresa izan zen berritze lanen arduradun.

■ San Antolineko errotondaren erdi-erdian **"Bide Gurutzea" izeneko eskultura** jarri zuten otsailean. Coorten izeneko burdinezkoa, ingurugiroarekin oreka bilatu nahi omen du Jesus Rodriguezen arte-lanak.

■ Udal Euskara Zerbitzuak otsailean kalera-tu zituen **elgoibartarren hizkuntz jokae-ra neurtzeko inkestaren emaitzak**. Azterketak zioen herritaren %31,8ak erabiltzen duela euskara, %41,5ak zaharren artean eta %47,3ak haurren artean. Gazteei dagokienean %30ak hitz egiten omen du euskaraz.

■ **Udalak eta Elgoibarko Izarrak lankidetza hitzarmena sinatu zuten** otsailaren 21ean. Elgoibarko Izarrari ezezik, BARRENI ere dirulaguntza emateko konpromezua sinatu zuen Udalak.

PROTAGONISTAK



□ **Paco Egea** elgoibartarra otsailean izendatu zuten Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sailburuorde, hiru urtez Aldundiko Ekonomia Zuzendaria izan ondoren. Ekonomiaren berpiztea iragarri zuen orduan Paco Egeak, itxuraz 97-98 urtera arte iraungo duen gorakada.



□ San Lorentzo auzoko **Justo Arriola** izan zen Elgoibarko I. Bolo Txapelketako irabazlea. Taldekako sailean, berriz, San Migeleko taldea nagusitu zen, hauen eta sanlorentzotarren arteko lehia izugarria izan zen arren.

□ **Ibai klubeko** Gorka Garatek, Andoitz Agirregomezkortak eta Javier Quintanok brontzea eskuratu zuten bakoitzak bere kategorian, otsailaren 11n izan zen Gipuzkoako Judo Txapelketan.

□ **6NEMEN9** taldearen izen bereko maketa izan zen Diario Vasco Devórame gehigarrian maketarik botatuena.




ETXEBIZITZA
ETA
PABILIOI INDUSTRIALEN
PROMOZIOA

San Inazio,4 - Tel 74 14 99
ELGOIBAR (Gipuzkoa)



San Roke 30 behea - Tel. 74 38 09 - ELGOIBAR

MEKANIZATUAK

MEKANIZATU
HAUNDIAK

LAM OREZIAK
153 Potsa kutxatila
Ibaitarte kalea, 2
74 12 97 - 74 06 64
Faxa 74 43 21



Sigmak ateak itxi zituen

martxoan. Azken urteetako zuzendaritzaren gestio kaxkarrak bideraezina bihurtu zuen Sigmaren etorkizuna. Ondorioz 250 langile kaleratu zituzten. Asko indemnizazioak jaso gabe geratu ziren kalean. Auzia azarora arte luzatu da, azkenean makinaren stock-aren salmentarekin langileek indemnizazioak eskuratu ahal izango dituztelarik.

Emakume Langilearen

eguna ospatu zen urtero bezala martxoaren 8an. Elgoibarko Emakume kolektibo ezberdinek, *Andraize* eta *Kalera* Taldeak, Udaleko Ongizate Saila eta Osasun Zentruko langileekin bat egin ez ekintzez beteriko egitarau kompletu bezain zabala antolatu zuten: hitzaldiak, irratsaio bereziak, zinea, erakusketa eta bazkari herrikoa.

Martxoaren 17an Txinatik 16 laguneko talde bat heldu zen Elgoibarrera

IMHn erreminta makinari buruzko formazio ikastaroa burutzeko asmoz. Hiru hilabeteko egonaldia egin zuten.



Korrikaren 9. edizioak martxoaren 23an igaro zituen Elgoibarko kale eta auzoak. Bi urtetik behin AEK euskaltegiak antolatzen du Korrika euskaltegiaren alde dirua biltzeko.

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal



**URKIDI
AHOLKULARITZA**

ASEGUEROAK

Kalamua 12 ELGOIBAR Tel-Fax: 74 18 91

*Ondo pasa
Gabon jaiak
eta hobeto
hasi Urte
Berrian!*

KALAMUA

TXAPA
ALMAZENA

Tel 19 93 65 DEBA
42. postakutxa ELGOIBAR

ARAZOAK ZURE AHOTSAREKIN?

Landu ezazu!

Polipoek, noduloek, ahotsaren erabilera okerrak, etab...
ERAGINDAKO RONKERAK

ANGELA ZABALETA AIZPITARTE
KANTU IRAKASLEA

DEITU ☎ 74 15 56

*Ondo pasa
Gabon jaiak
eta hobeto
hasi Urte
Berrian!*

AGIRRE
HARATEGIA

Zorionak!

Santa Ana, 7. Elgoibar
☎ 74 05 97



BARREN astekariak 100. zenbakia kaleratu zuen martxoaren 17an. Xabier Lete, "Kazetarien eragina euskal gizartean" mahaingurua, BARREN I. Krosa, bazkaria eta BARRENi buruzko ikerketa egin ziren modu berezian ospatzeko. Tartarik ere ez zen falta izan eta oroigarri modura BARRENeke logotipoarekin kamisetak atera ziren.

PROTAGONISTAK



□ **Zabale anaiak**, Ibon eta Xabier, Elgoibar-ko Trikitilari Eskolako irakasleak Euskadi Irratiak urtero antolatzen duen Pieza Berrien txapelketako irabazleak izan ziren.



□ **Carmen Perea** aukeratu zuten 1994ko kirolaririk onena Barreneke antolatutako 1994ko KirlBARREN lehiaketan.

□ **Eskubaloi Taldeko kadete neskak** Gipuzkoako txapel-geratu ziren. Iaz talde hau Gipuzkoako eta Euskadiko txapel-geratu eta Espainiko laugarren izan zen.

□ Institutuko hiru ikaslek "Euskal Eskola Publikoa Denona" ipuin lehiaketan, 17-18 urte bitarteko kategorian, sari bana jaso zuten. Sarituak **Celia Pelaz**, **Sonia Etxaniz** eta **Mirari Osoro** izan ziren.

□ San Bartolome Ikastolako **Joseba Gonzalez**, **Uxue Alberdi**, **Ainhoa Uriarte** eta **Asier Barrutia** irabazle atera ziren txistek kontatzen ETB kateko *Baitez Barrez Lebertu* saioan.

□ **Gorka Sanchez** Mintxeta-Txankakua Taldeko korrikalariak Gipuzkoako bigarren eta Euskadiko laugarren postuak lortu zituen Katalunia, Andorra eta Gipuzkoako selekzioen nor-gehiagokan.

**JATETXEA
ETA
TABERNA**
P. Muguruza 8. ☎ 74 06 21

W/O.S.A. INDUSTRIAK
NEURRIRA EGINDAKO MAKINAK

- Robot industrialak.
- Muntaia automatikorako teknikak eta manipulazioa.

Donosti-Bilbo errep. 53. km. - (943) 75 50 00 - faxa (943) 75 51 62 - 54 P.k. - ELGOIBAR

Merino zapatak
*Irekita larunbat
arratsaldeetan*
SALMENTA
KONPONKETAK
Errosario 11/12 behea

**VICTORIA
IRAEGUI**
MASAIA TERAPEUTIKOA
ETA DEPORTIBOA

ORDUTEGIA:

- goizez: 10 - 13
- arratsaldez: 4,30 - 7

*Aurrez deituz
gero, hobe!*

Errosario kalea 34, 1 eskuma Tel: 74 18 51

Gabon
Zoriontsuak
eta Urte
Berri On!



Errotatxo Elkarteak

Prebentzioaren Astea ospatu zuen apirilaren 24tik 28ra bitartean. Herriko 37 talde eta kolektibok hartu zuten parte Plaza Handian egin ohi den topaketan. Besterik ere antolatu zuten Errotatxokoek: hitzaldiak, mahainguruak, rock kontzertuak, etab.

Urgazi Triathloi Taldeak

antolatuta, Elgoibarko triathloia 5. edizioa burutu zen apirilaren 29an. Senior eta junior mailetan Eneko Llanosek irabazi zuen eta emakumezkoetan Nerea Martinezek. Beteranoetan Roman Hernandez eta Eduardo Macua izan ziren irabazleak. Parte hartu zuten elgoibartarrak bi izan ziren: Jose Felix Iglesias eta Iñigo Ansola.



foto | azkue *Zorionak eta Eguberri On!*

San Bartolome 26, Tel. 74 08 48



TINDATEGIA

Zorionak Urte Berri On!

Foruen Enparantza 4
Tel. 74 00 91



**OIHALA
MERTZERIA**

Ondo pasa Gabon jaiak!

Errosario 8. Tel:74 35 95



**BIRE
ELETRAGAILUAK**

Gabonetan eskaintza bereziak!

■ Apirilaren 6ko plenoan onartu zen **1995. urteko aurrekontua: 1.108.500 milioi**. Aspaldian Elgoibarko Udaletxeak izan duen aurrekonturik murrizena.

■ C.D. Elgoibar Elkarteko **2. errejionaleko taldea** lehen errejionalera igo zen. Denboraldi aparta egin zuen talde honek. Igoera, beraz, ondo merezitakoa izan zen.



■ Apirilean kaleratu zen **Ikastolak 1996. urteko Kilometroak** antolatuko duen notizia. Bost herri ezberdinek egin zuten antolatzeko eskakizuna, guztien artean Elgoibarko Ikastola aukeratu zutelarik. Datorren urtean Elgoibarko herria sortu zenetik 650 urte betetzen direnez, Udalarrekin elkarlanean, Elgoibar hiriburu kulturala bihurtuko da.

■ Apirilaren 27ko plenoan **Talde Antimilitaristak aurkeztutako mozioaren** puntu gehienak onartu ziren. Ertzaintzak intsumituak ez atxilotzea eskatzen zuen puntua eta Elgoibar herri intsumitua izendatzeari buruzkoa ez ziren onartu.

PROTAGONISTAK



□ **Joseba Etxeberriak** urrezko bota, gol gehien sartzen dituenari ematen zaiona, irabazi zuen Qatar-eko futbol mundialean. Etxeberria 20 urte-tik beherako munduko golegilerik onena izan zen, zazpi golekin.

□ **Grefusitos** izeneko saskibaloitza taldeak lehenengo Kopa Txapelketa irabazi zuen Eibarko Saskibaloitza Txapelketan.

□ **Gorka Garatek**, Ibai gimnasioko judoka gazteak brontzezko domina eskuratu zuen 17 urtetik beherako Euskadiko Judo txapelketan.



□ **Liburuaren Eguna** ospatu zen apirilaren 23an. Udal Liburutegiak I. Idazlan eta Marrazki Lehiaketa antolatuta zuten eta irabazleak ondoko hauek izan ziren: Ainhoa Garitagoitia marrazki lehiaketan eta Josu Gabilondo idazlanetan.

Kartutxo Pub

S. Frantzisko, 33 ☎ 74 27 24

NOZKI

DIETETIKA KONTROLA

Foruen plaza, 5
Tel. 74 08 78

ANCHUSTEGUI
KERAMIKAK

Zorionak eta Urte Berri On!

Antonio Arrillaga 6-8. ☎ 74 33 44 - 74 06 92 - ELGOIBAR

Maiatz



Maiatzaren lehen igandean

eman zuten estrainekez meza eraberritutako elizan. 190 milioko zenbatekoa izan zuen berritze lanen lehen faseak. Teilatua, kupula eta bobedak berritu ziren eta eliza barrua egokitu eta apaindu. Lanak BRUES S.A. enpresak burutu zituen, Encio arkitektuaren ardurapean. Bigarren fasean kanpandorrea eta elizatariak konponduko dira eta azkenik, hirugarren batean, elizako lokalak eta fatxada guztia.

Galiza Etxeak "Dia Das Letras Galegas"

ospatu zuen. Ohitura den bezala, Galiziako gastronomia eta folkloreak adierazpide gisa enpanadak, lakoia, oreiak eta Ribeiro ardoa dastatzeko eta gaita eta dantza saio ezberdinak ikusteko aukera izan zen, besteak beste.



Elgoibarko Izarrak antolatutako


mahainguruak EAJ, HB eta EAKo alkategaiak elkartu zituen Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Herritarren erantzuna erabatekoa izan zen, hiltzaldi gela lepo baitzegoen.

ecenarro

- Bct t w n q
gt t q r c m
- Uo g g p l e v
gt t q r c m

Zorionak eta Urte Berri On!!

San Frantzisko 10,
Tel.: 74 26 19

 DEBA
GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

ARRASATE ☎ 77 13 02
BERGARA ☎ 76 21 80
ELGOIBAR ☎ 74 42 83

LAGUNTZA OFIZIALAK ETXEBIZITZAK EROSTEKO:
Erabat dohainik eta konpromezurik gabe, DEBA GARAIAko ofizinak jaso ditzakezun dirulaguntzez informatuko zaitu.

DEBA GARAIAREN ZERBITZUAK:
TASAZIOAK, SALEROSKETAN GESTIO OROKORRA, AHOLKULARITZA FISKALA, FINANTZAKETA, LAGUNTZA OFIZIALAK.

DORI urdaitegia

Ondo pasa Gabonak!

 Errosario 29. ☎ 74 11 92

■ Elgoibar **Gaztetxerik gabe** dagoela **lau urte** bete ziren maiatzean. Egoera salatzeko eta Gazte bat aldarrikatzeko, Gazte Asanbladak zenbait ekintza antolatatu zituen, tartean bost rock kon-tzertu.

■ **Real Sociedad eta C.D. Elgoibarko veteranoek** futbol partidua jokatu zuten Mintxetan Errotatzok antolatutako Prebentzio Egunaren egitarauaren barruan. Txuriurdinek 5 eta 2 irabazi zieten herrikoei.

■ San Bartolome Ikastolako 7. mailako ikasleek, Sebas Larrañaga eta Jabier Larrañaga irakasleen ardurapean, **hirugarren saria** lortu zuten Euskadiko Kutxak antolatutako **III. Sketch lehiaketan**.

■ **Maiatzeko hauteskundeetan** PNV izan zen herrian lehen indarra 2.483 boturekin. Bigarren EA, 1.187rekin, HB hirugarren 1.112 boturekin, atzetik PSE-EE 656rekin, bosgarren PP 519rekin eta azkenik, IU-EB, 351 boturekin.

■ **Juan Carlos Abián** bilbotarrak PPren aldetik eta **Juan Ignacio Ausin** elgoibartarrak IUtik, ordezkaritza lortzeko behar adinako botuak jaso zituzten maiatzeko hauteskundeetan.

PROTAGONISTAK



□ **Gorka Sanchezek** Gipuzkoako Eskolarteko Infantilen Atletismo Txapelketan brontzeko domina eskuratu zuen 3.000 metrotan.



□ **Ainara De Pedro** Gipuzkoako Bertsolarien txapelketako irabazlea izan zen bertso paperean. Finalisten artean beste elgoibartar bat ere bazegoen: Kepa Mendikute.

□ **Zokoan** taldeak maketa berria kaleratu zuen maiatzean. Sei abestiz osatutako maketarekin bat, abeslari berria ere aurkeztu zuten, Iban Urizar elgoibartarra.

□ **Sanmigeldarrak Gipuzkoako Bolo txapelkunak** izan ziren. Taldea, binaka eta banakako sailetan nagusi izan ziren elgoibartarrak.

□ **Pilar Arriola, Ana Etxaniz** eta **Oihana Chico** Zumarragako herri krosean lehenak geratu ziren bakoitza bere kategorian.

□ **Jabier Uzuriagak** irabazi zuen La Unión elkarteak antolatutako plater tiraketa txapelketa.

□ **Andoitz Agirregomezkortak** judoko gerriko beltza eskuratu zuen; herrian gerriko beltza lortzen duen hirugarren elgoibartarra.

□ **Ikaslevis** taldea, Eskolarteko Gipuzkoako Txapelkun izan zen areto futbolearen. Joseba Galarragak entrenatzen zuen nesken talde hau.

□ **Jabier Oñederra** Sarjento berria izendatu zuten Elgoibarko udaltzainen buru izateko. Jabier Oñederra izan zen izendatua, 14 urtez udaltzain lanetan jardun eta gero.



Olaso kalea 27 eta 54 A ELGOIBAR 20870
Tel/Fax: 74 42 84

Zur ta Lur

Ondo pasa jGabonak!

••• ALTZARIAK •••

Dekorazio proiektuak

Altzari integralak

Altzari modernoaren denda berria

Eskualdeko bakarra bere sektorean



Bitxidenda

San Frantzisko 26. ☎ 74

Gabonetako eskaintza berezia

Urrezko bi erloju zozketatuko ditugu!

Zatoz eta 1.000 ptako gastuagatik zu ere zozketan sartuko zara.

*Zatoz!
Zure zain
gaude.*



Tanborrada kalez kale ibili zen, 9 urtez desagertuta egon eta gero, ekainaren 10ean, Trinitate jaiak ospatzeko. Aurten, lehen aldiz, neskek ere izan zuten partehartzerik eta guztira 130 pertsona elkartu ziren, tanborrez eta barrikaz kaleetan zehar demaseko burrunbak sortuz.

Euskadiko Eskalada Txapelketa ospatu zen ekainaren 17a eta 18a bitartean Morkaikok antolatua. Txapeldunak David Carretero (41,75 m) eta Josune Bereziartu (36,25 m) izan ziren. Polemika ere izan zen txapelketan, bizkaitarrek parte ez hartzea erabaki baitzuten.



FERDY **DEGUSTAZIOA**

ZURE KONBITEAK EGITEKO LEKU APROPOSENA! *Zorionak eta Urte berri On!*

Plaza Txikia z/g ☎ 74 43 45 ELGOIBAR

ASGI
taberna

Urasandi 1,2.zbk.
Tel: 74 28 38

GABIOLA GESTORIA

- GAIAK OROKORREAN
- "AURORA" ASEGURUAK
- GIDA BAIMENAK
- AHOLKULARITZA FISKALA *Zorionak!*
- ARMABAIMENAK
- AUTOMOBILAK ETA GARRAIOAK

San Frantzisko 22 • Tel. 74 07 97 • ELGOIBAR

magu's

ILEAPAINDEGIA
EDERGINTZA

San Roke 6 behea tel. 74 34 91

■ **Guraso Eskolaren ardura duen Hezitzen taldeak ikerketa bat** egin zuen OHOk 7. eta 8. mailako ikasleen artean. Emaitzen arabera, gure herriko gazteak agobiatuta eta estresatuta bizi direla jakin ahal izan genuen eta gurasoak direla beraien erreferentzia ereduak, beraien maitasuna asko baloratzen dutela nahiz eta ez diren ulertuak sentitzen.

■ Aurten ere egin da Elgoibar-Elgoibar **mendi itzulia** Morkaikok antolatua. Lehenengo iritsi zen taldeak 6 ordu eta 43 minutu eman zituen ibilbide osoa eginen.

■ **Bi intsumitu** elgoibartar “busca y captura” agindupean zeuden. Bi gazte hauei epaiketa egin zitzaien eta 2 urte, lau hilabete eta egun bateko zigorra ezarri zien epaileak.

■ **“Euskara, Elgoibar eta Elgoibarko Izarra”** izenburupean aurkeztu zuten ikerketan. Elkarrekin herrian duen ezagutza maila, jendeak elkarrekin iharduere-tan parte hartzeko duen jarrera bai eta euskararekiko jendearen motibazioa ere neurtu nahi izan zuten. Ikerketaren arabera, elgoibartarren %94 euskara indartzearen aldekoa da.

■ San Bartolome Ikastolako 8. mailako **Ikas-Xerox taldea Gipuzkoako eskubaloi txapeldun** geratu zen. Elgoibartarrekin Zarautzeko Eskuzortzi taldearen aurka jokatu zuten finala, 23-11 nagusitu zirelarik.

PROTAGONISTAK



□ **Jon Zabala, Koldo Galdona eta Gorka Regilek** osatutako hirukotea Trinitate jaietan lehen aldiz aritu zen dultzainero.

□ Finalista egunean mendizale taldearen alde lan ugari egingakoak ziren **Primitivo Martinez** eta **Manuel Ullibarri** omendu zituzten. Oroigarria haien alargunek jaso zuten.

□ **Sebas Etxaniz Alkorta** preso elgoibartarra aske utzi zuten. Nikaraguan 15 urte eman eta gero, 1993an estraditatu eta gartzelan sartu zuten.

□ Nahaste Borrastearen iazko errekorra hautsi zuen **J.F. Iglesiasek**. Iaz David Condek lortutako denbora 22 segundotan jaitsi zuen.

□ **Arantza Beristain** elgoibartarrak Euskadiko Eskalada Txapelketan parte hartu zuen. Hasi berria den arren, ingurukoek animatzen zutela ikusirik, partehartzea erabaki zuen.

□ **Gillermo Garate** izendatu zuten alkate datozen lau urteei begira ekainaren 17an egin zen Udal Plenoan.



□ **Jose Gurrutxagak** Espainiako Beteranoen Atletismo Txapelketan parte hartu zuen eta txapeldunorde geratu zen 100 eta 200 m.ko lasterketetan.

● *Inazio Bereziartua Musikeskola*

Inazio Bereziartua Musikeskolak Gabon jaiak kantu, musika eta dantza lagun dituzula pasa ditzazun opa dizu.



Santa ana, 5 - Tel. 74 06 46 *Zorionak!*

**Argazki errebelatua
ordu batean
Erreportaiak
Ezkontzak
Estudio argazkiak
Jaunartzeak
Karnetak
Argazki materiala**

Uztaila



AZKUE

Haritzek antolaturiko IX. Nazioarteko Folklore Jaialdian

Benin eta Errusiako Kabardino Balkaria errepublikako dantzariak hartu zuten parte. Portugaleteko Elai-Alai Dantzari taldeari esker izaten dira urtero dantzari atzerritarrak Elgoibarren.

Mauxitxa txarangak 1970.

urteko uztailaren 26an jo zuen estrainekoz Plazentziako Santa Ana Txiki egunean. Iazko San Bartolme jaietan 25. Txiki eguna ospatu zuen Mauxitxak baina taldea sortu zeneko 25. urteurrena aurtengo uztailaren 26an bete zen.



TABERNA

Lci wpct vgnq
clct lgvct cmq rgnw
crtqrqc

Eguberrri On!

San Roke auzoa 5. ☎ 74 25 95



• Eramateko
OILASKO ERREAK
• Hobe aurrez
eskatuz gero



Gabon
Zoriontsuak
eta
Urte Berrri On!

San Frantzisko 23,
Tel. 74 27 58

■ 90. urtearekin konparatuz %90ean dago erreminta makinaren sektorea. Alberto Ortueta AFMko lehendakariaren esanetan, **erreminta makinaren sektoreak gora egin zuen 95eko lehen bost hilabetee-tan.**

■ 1995.eko martxoaren 31ko datuen arabera, Elgoibarko **herriaren ondarea** 5.691.104.655 pta.koa da. Besteak beste, Udaletxea 73 milioitan baloratua dago, Mintxeta 400 milioitan eta Merkatu plaza 265 milioitan.

■ Kultur Etxeko proiektio gelan **San Ferminetako entzierroak** pantaila handian ikusi ahal izan zuten hurbildu ziren guztiek.

■ **Gazte Asanbladak** Lerun-Morterika proiektu partzialaren inguruan **alegazioak** aurkeztu zituen, besteak beste, "ingurugiroan izan dezakeen eragina ez delako aztertu".

■ **HBk** Elgoibarko Udaletxean azken urteotan egindako hainbat **kontratazio salatu** zituen.

■ **Gurutze Gorriak** aire libreko zinean ikusleen artean 20 boltsa banatu zituen jendeak bertara bota zitzaizkan zakarrak. Ekintza hau burutu zuten zine emanaldien ostean Plaza zakarrez josita geratzen zela ikusita.

■ San Bartolome Ikastolako 8. mailako **Ikas-Xerox** taldeak Alicanten jokatu zen Eskolarteko Espainiako Eskubaloi Txapelketan bosgarren postua lortu zuen. Talde hau Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun ere izan zen.

PROTAGONISTAK



□ **Lutxi Arregi** intsumitu elgoibartarra Martuteneko gartzelan sartu zuten uztailearen 13an. Lutxik eta beste sei intsumituk Donostiako Justizia Jauregian beren burua katez lotu zuten atxilotuak izan zitezten.



□ **Pello Ezkurrak** irabazi zuen Udalak antolaturiko San Bartolome jaietako kartel lehiaketa. 40.000 pta. jaso zituen Pellok.

□ **Joseba Etxeberria** futbolari elgoibartarrak Athletic de Bilbao taldearekin fitxatu zuen datozen sei denboraldietan jokatzeko. Txurigorrien taldean jokatzearen 190 milioi jasoko ditu Josebak.

□ Lanbide Eskolako bi ikasle (**Josu Vazquez eta Iñigo Etxabe**) Espainia mailan antolatzen den "Juventudes Citroen" automozio lehiaketan sailkatu ziren.

UDA BERRI
ELGOIBAR

*Ondo pasa
Gabon Jaiak!*

Richi *Zorionak eta ondo
pasa Gabonak!*

ILEAPAINDEGIA • DEPILAZIOA • MASAIA
ILERAKO TRATAMENDUETAN ESPEZIALISTAK:
Koipea • Kaspa • Erorketa

Errosario 6 - 1. Tel. 74 30 11. ELGOIBAR

XABIER *Gabon Jai
Zoriontsuak
eta Urte
Berri On!*

ILEAPAINDEGIA
*Eskatu eguna
eta ordua*

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

PINTXO HOTZAK BEROAK
ETA KAZUELATXOAK

**ALDAPA
TABERNA**

*Ondo Pasa
Gabon Jaiak!*


Santa Klara -22
☎ 74 26 32

Abuztua Iraila



Txinatik etorritako hamabost teknikok erreminta makinaren teknologia berrien ikastaroa egin zuten hiru hilabetetan zehar. Txinar ikasleak IMHra datozen bigarren aldia izan zen, udaberrian ere beste talde bat izan baitzen ikastaro berbera burutzen. Oraindik ere kalean ikusten ditugun arren, Gabonetarako Txinara itzuliko dira.

Aire libreko zineak uztailean hasi eta irailera bitartean iraun zuen Ongarrik antolatuta. Aurten inoiz baino jende gehiago elkartu zen, bataz beste, 1200 ikusle eguneko. Uztaileko pelikulak hurrei zuzenduak izan ziren batez ere. abuztuan azken astean izan ziren emankizunak eta filmerik komertzialenak irailean eman zituzten.



GABILONDO
INMOBILIARI AGENTZIA

S. Frantzisko, 51. 1D

Domingo Irala kalea

Arrieta
moda h Zorionak!

San Bartolome 18. ☎ 74 08 49

AZPELETA elektrizitatea

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ARGIZAPENAK
- AUTOMATISMOAK

Ondo pasa Gabonak!

San Frantzisko 51, behea. Tel: 74 12 38



*Ondo pasa Gabon
jaiak!*
karkizano

San Frantzisko 12-14, Tel. 74 05 49

■ Euskal Herriko **Gay Askapen Mugimenduak** antolatuta, 100etik gora emakume eta gizonzko asteburua igarotzen izan ziren Aubixan.

■ **129 ikaslek** ikasturte berria hasi zuten Erreminta Makinaren Institutuan kokatzen den **Gestio Eskolan**.

■ **Udaltzaingoan** zebra bideak errespeta daitezen kanpainari ekin zioten. Izan ere, gidariak ez dute kasurik egiten zebra bidean aurrean.

■ 1995eko San Bartolome **jaien aurrekontua** 14.769.731 pta.koa izan zen.

■ **Elgoibarko Eskubaloitaldetaren** plantilan lau ekipo daude aurtengo denboraldirako. Nesken senior taldea jende faltagatik desegin zen.

■ **Joxin Arregi**, 37 urteko azpeitiarra, San Bartolome parrokiako apaiza izan zena, Eibarko San Andres elizako parroko izendatu zuten.

■ **Open House 95** izeneko ate irekien jardunaldiak burutu ziren Danobat-en hilaren 25etik 29ra bitartean.

PROTAGONISTAK



□ **Jose Alberto Ansola** "Mauxitxari" txaranga 25 urte segidan jotzeagatik abuztuaren 23an Udaltzatzak omenaldia egin zion.




□ **Koldo Lizarralde** bere azken lana argitaratu zuen, euskaraz eta gazteleraz, "Elgoibar, lanak eta mendeak" izenburukoa. Bere hitzetan, "historiaurretik hasita, pelikula baten moduan, jendea liburuaren aurrean jarri eta mendeak nola igarotzen diren ikustea nahi nuen".

□ **Mertxe Sueskun** eskultoreak Poloniako Lodz hirian erakusketa egin zuen. Bere eskulturak egiteko era guztietako materialak erabili zituen: dametako fitxak, kaxak, burdina, egurra...

□ **Felix Lodoso** lehendakaria izango da, Jose Antonio Osoro lehendakariorde, Jose Mari Kortaberria bokala eta Txomin Mujika diruzaina. Datozen bi urteotan elgoibartarren esku egongo da Gibantzar, Gipuzkoako Banden Federazioaren zuzendaritza eta egoitza ere Elgoibarren izango du.

□ **Gemma Monrealen** margoak Jaen-eko Cazorla herrian izan ziren ikusgai. Guztira 30 lanek osatu zuten erakusketa.

□ **Itziar Fernandez** elgoibartarra Emakundeko idazkaria da eta irailean Pekinen ospatu zen Emakumearen konferentzian parte hartu zuen. Itziar Huairoun izan zen, ONGak antolatutako foro alternatiboan.



NOVAK C.E.

MEKANIZATUAK

OLASO INDUSTRIALDEA 37
TEL. 74 37 02 FAXA: 74 39 01
20870 ELGOIBAR GIPUZKOA

*Zorionak eta
Eguberri On!*

**IRIONDO
Taberna**

P. Muguruza 2. ELGOIBAR

GARATE
estankoa

Santa Ana 20 - ☎ 74 03 40

■ **Deba Beheko Mankomunitateko** presidentea den Jose Alberto Aranberri Amatiñok esan zuenez, "Mankomunitateak bilketa selektiboaren aldeko apustu argia egin du". Besteak beste, hondakin izaten bukatzen duten ahalik eta ontzi gutxien generatzea, atez ateko bilketa selektiboa egitea eta herritarren kontzientzia maila handitzea dira Mankomunitatearen helburuak.

■ **ONCEko Madalako saltokian** urriaren 16ko zozketan **50 milioi** tokatu ziren. Zenbaki saritua 64.793 izan zen. Dolores Trigueros, saltzaileak adierazi zuenez, kupoiak pertsona askoren artean saldu ziren.

■ Kirolaren garrantzia azpimarratzeko asmotan Udalak **kirol patronatuaren sorrera** bultzatu zuen. Udaletxearen funtzionamendutik at, erakundearen sortzea erabaki zuen Udalak kirol gaien gestioa arintzeko asmoz.

■ **Pleno istilutsua** izan zen urriaren 27koa. Lerun-Txiki Morterika proiektuaren inguruan Gazte Asanbladak pankarta bat zabaldu zuen. Udaltzainak kartela kentzera joan zirenean tirabirak sortu ziren hauen eta Gazte Asanbladakoen artean, zenbait kidek lurtean amaitu zutelarik. Azkenean, proiektuaren zatikako plana onartu egin zen.



Atxutxiamaika taldea sortu zen Elgoibarko Izarraren barruan duela urtebete haurren aisialdia euskaraz antolatzeko. Taldea 31 begirale tituludunek osatzen dute. Urtean zehar "Larunbatero" egitasmoa, Udaleku Irekiak eta Itxiak eta Gabonetako iharduerak antolatu ohi dituzte eta horrez gain, begirale zerbitzua ere eskaintzen dute.



Turismoa indartu nahi da 2000. urterako Deba Behean, kostaldean ezezik baita barnealdean ere eta, nola ez, Elgoibarren. Hortaz, baliteke hemendik urte batzuetara gure herrian parke zoologiko bat izatea.



IPINTZA
Pinturak
DEKORATZAILEA

- Pintura eta paperen salmenta
- Mocketak eta sintasolak jartzen ditugu
- Zoru eta hormen apaindurak
- kortinak saldu eta ipini
- kortinen erakusketa Errosario kaleko 7an

Zorionak! Foruen Plaza 4 ☎ 74 04 40

usua **KAFETEGIA**

Zorionak eta ondo bukatu urte zaharra!



Santa Ana, 6. Tel. 74 25 20



DEBAPE
INPRIMATEGIA
komunikazio grafikoa

- DISEINU GRAFIKOA
- OFFSET LITOGRAFIA
- FOTOKONPOSIZIOA
- PUBLIZITATE DISEINUA
- ERA GUZTITAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK

Olaso industrialdea, 27 • Tel.: 74 40 58 • Faxa: 74 41 78 • ELGOIBAR



HIESaren astea antolatu zuen aurten ere Errotatxok, Drogomenpekotasunen Prebentziorako Elkartek. Besteak beste, erakusketa, hitzaldiak, mahai informatiboak eta zinea izan ziren ikusgai astebetean zehar.



Deba ibaia da

Gipuzkoako ibaien artean kutsatuena Gipuzkoako Aldundiak egindako azterketaren arabera. Halere, Gipuzkoako Ur Patzuergoak Deba ibaiaren saneamendurako plan integrala egin du. Teknimap Ambiental enpresako arduraduna den Migel Sanchezen hitzetan, "2000 edo 2005 urte inguruan litekeena da Deba ibaia garbi egotea".

PROTAGONISTAK



□ **Ramon Ortega** argazkilari elgoibartarrak Estatu mailako Eibarko VIII. Indalecio Ojanguren Argazki Lehiaketa irabazi zuen. Ortegak 1994an New York-en atera zituen saritutako argazkiak.



□ **Pablo Barrenetxea eta Aitor Esanola** elgoibartarrak Kalifoniaman izan ziren Yosemite mendiko "El Capitan" horma eskalatzeko.




IDAMA

..... **ILEAPAINDEGIA**

✕ MISTOA ✕ MAKILAIK

✕ EMAZTEGAI/SENARGAIENTZAKO ORRAZKERAK

..... **ESTETIKA**

✕ DEPILAZIOA HOTZA ETA BEROA ✕ SOLARIUMA

✕ MANIKURAK ✕ AURPEGI GARBIKETAK

Santa Ana 7. ☎ 74 40 26 ELGOIBAR

Ondo bukatu urte zaharra eta berria hobeto hasi!

ILEAPAINDEGIA

FADEK SOLARIUM

Encomienda Kalea, 35 bidea

☎ 74 26 92 Elgoibar

Hilerrirako proiektu berria aurkeztu zen Domusantu egunean. Udalak 872 nitxo berri eraikitzeko proiektua azaltzen zuen maketa ikusgai eduki zuen Olasoko kanposantuan. Hilobi familiarak izango lirateke, panteoi modura, lau nitxokoak.



Santa Zezilia eguna ospatu eta organoaren mendeurrena bete ziren azaroan. Musika ekitaldi ugari izan ziren han eta hemen, organo hitzaldiak eta kontzertuak, Musikeskolako ikasleen, Itxaropenaren, Parroki abesbatzaren kontzertuak, Ikastolako ikasleen kalejirak...

Intsumituen aldeko herri plataformaren aurkezpenean, herriko jende ezberdinez osatutako taldekoek intsumituekin elkartasuna adierazteko sortua izan zela adierazi zuten.



Maltzaga eta Sigma bitarteko errepidea

inauguratu zuten azaroaren 3an. 11 hilabeteko iraupena eta 460 milioiko kostua izan zuten berritze lanek.



..TXIMI, S.A. TAILERRAK..

Tornu, fresadora eta rektifikatu LANAK

OLASO industrialdea behea. Tel. 74 10 43 Faxa: 74 10 43

 **JOSE ANTONIO** ileapaindegia

- Hiesa eta hepatitisaren kontrako tresneriaz horniturik.
- Ilearen zainketarako tratamenduak.
- "KERASTASE" k aholkatutako ileapaindegia.

ZATOZ GUREGANA !

Errosario 30. Tel. 74 14 92. ELGOIBAR

oizmendi

Tel: 74 00 16

TABERNA

Maria Urizar ileapaindegi mistoa

ÇABON ZORIONTSUAK PASA ITZAZUE!

Errosario 9-1 ezk. 74 44 89 ELGOIBAR

■ **Eak Udalaren** hiruhilabeteko martxaren **balantzea** egin zuen. PNVren euskarekiko jarrera, kontratazioen irregularitasunak eta kultur batzordearen funtzionamendu kaxkarrak kritikatu zituzten.

■ Azaroaren leian ekin zion **Zazpikik** berriz uztailen eten zen **irratsaioen emisioari**. Kalitatearen aldeko ahalegina egin, informatibo kopurua gehitu eta programazioa finkatu dira aurtengo asmoak.

■ Kokoek antolatzen duen **Komiki Lehiaketaren lehen saria** Elcheko **Juan Francisco Del Peral Pineda** komikilariak irabazi zuen. Bigarren saria Roberto Martinez bilbotarrarentzat izan zen, hirugarrena Bartzelonako Paco Alcazarek irabazi zuen eta 17 urtetik beherako kategorian, Trapagako Amaia Ballesteros izan zen saritua.

■ **PPko Juan Carlos Abianek** Eusko Trenbideak enpresak Bilbo-Donostia ibilbideko **tren zuzenak kentzea** kritikatu zuen. Enpresako sindikatuak Elgoibarko apeaderoan eta Ermuko geltokian segurtasun neurriak betetzen ez direla salatzen zuten.

■ Epaiketetan zein herritarrek osatuko dituzte **epamahaia**k ezagutarazi zen azaroan. Guztira 38 herritarrek izango dute epamahaiko izateko betebeharrak justiziak hala eskatzen dienean.

■ **Donostia-Behobian 43 elgoibartarrek** hartu zuten parte. Urrutiago izan zen beste lasterketa batean, New York-en hain zuzen, Izaskun Estibarizek korritu zuen.

PROTAGONISTAK



□ **Zigor Gazkez**, 25 urteko elgoibartar kantautoreak Azkoitiko Baztartxo antzokian John Martin irlandarraren ostean jo zuen, telonero. Euskaraz eta ingelesez abesten du eta etxean grabatutako maketa bat, M.100 izeneko kaleratu du.



□ **Salmigeldarrak** Euskadiko Bolo Txapelketan nagusi izan ziren. Taldeka, binaka eta banaka irabazi zuten, Euskadiko txapela laugarren aldiz eskuratzen zuten aldia izan zen.

□ Karaktera bigarren igoeran eibartar bat, **Juan Aldai** nagusitu zen. Iazko errekorra, Susoren esku zegoena, 44 segundotan jaitea lortu zuen. Bigarren izan zen Fernández Suso, 31 minutu eta 03 segundoko denboraz. Hirugarren Jose Cruz Montes 31:25ekin, laugarren Santi Maiztegi 32:28ko denborarekin eta parte hartu zuen laugarren elgoibartarra, Jose Antonio Agote, seigarren iritsi zen tontorrera, 35 minutu eta 31 segundoko denbora eginez.

□ **Patxi Arriolak** Gipuzkoako eta Euskadiko ehiza txapelketak irabazi zituen azaroan "Ehiza xehea" izeneko modalitatean.



ZUBACOR, S.L.

Ondo pasa Gabon Jaiak!

Ibaitarte kalea, 11
Tel. 74 08 44
Fax 74 26 66

50 Posta kutxa
20870 ELGOIBAR
(Gipuzkoa)

AITZ — Taberna —

BOKATAK - KAZUELATXOAK - AFARI MERKEAK

Errosario, 20. *Urte Berri On eta Gabon jai zoriontsuak guztioi!*

JOSE ANGEL ZABALA

URDAITEGIA

Berezitasunak:

- Bakilaua
- Txerrikiak

Zorionak!

Merkatu Plaza 33-34

Abendua

Jubilatuena Etxeak aste osoko egitaraua prestatu zuen herriko jubilatua omentzeko asmoz. Aste osoan zehar dantzak, kontzertuak, zozketak, kina, eta beste ekitaldi mordo bat antolatuta zizuten, tartean herriko 80 urtetik gorako senar-emazteei omenaldia.



■ **Ur eskasiaren alarma** bazter guztietara hedatuta, elgoibartarrok sikutearen beldurrik izan behar ez dugula jakin genuen. Kilimoi errekatik 80 litro bonbeatzen dira segundoko eta Mendarotik ekarria, deposito mordo batetik jasotzen dugu ura elgoibartarrok: Kakatza, Agarre, Urtia, Arriaga, Altzola, Sigma eta Salaburuti.

■ **HIESaren nazioarteko eguna** ospatu zen hilaren 1ean. Elgoibarren, Errotatxo elkarteak bultzatuta, lazo gorriak balkoi eta leihoetatik zintzilik ikusi ziren egun horretan.

■ **Eskola mapa berriak** Herri Eskola, Instituta eta Mendaroko eskolari eragingo die. Oraindik ziurtatuta ez dagoen arren, 12 urtetik aurrera, Institutura joan beharko dute Mendaroko eta Herri Eskolako ikasleek.



Marcelino Sion leondarra izan zen Nazioarteko Xake Txapelketaren irabazlea. Bigarren Felix Izeta izan zen eta hirugarren, Daniel Campora. Herriko neska-mutilen arteko txapelketa ere burutu zen hiru kategoriatan: benjaminak, alebinak eta infantilak. Infantiletan Ivan Fernández izan zen lehena, alebinetan Maite Uriarte eta benjaminetan Beñat Gutierrez.



Mendaroko I. Kontzezio azoka burutu zen hilaren 9an. Mendaron bizi izan duten era honetako lehen esperientzia izan zen eta itxuraz, harrera ezin hobea izan zuen mendarotarren artean.

BETI ARGi. S.



- * SUKALDE TRESNERIA
- * INSTALAZIO OROKORRAK
- * OPARI ARTIKULUAK

*Zorionak eta Urte Berri On!
herritar guztioi*

Errosario 6 · Tel. 74 16 44 · ELGOIBAR

*ibai-
ondo*

Errelegia
Giza eskubideen Plaza

**T
R
U
K** **KAFETEGIA**
**alokairuan
edo
traspasoan**

☎ 74.26.21-74 00 09

■ **Kilometroak 96** jaiaren aurkezpen ofizialean zirkuitua, lema eta logotipoa eman zituzten ezagutzera. San Bartolome Ikastolaren alde urriaren 6an burutuko den Kilometroen 20. edizioan 100.000 lagunetik gora espero dituzte. Antolakuntzan talde aholkularia eratu da eta honez gain sei batzorde. Salmentarako denda ere ireki zuten abenduan, Kutxaren San Frantzisko kaleko egoitzan. "Banoa, banixe, euskaraz bai horixe" Ikastolako irakasleek asmatutako lema da.

■ Elgoibarko Izarrak **Hiru-Truku** musika taldearen kantaldia antolatu zuen hilaren 15ean. Herriko Antzokia musikazalez bete zen Ruper Ordorika, Tapia eta Bixente Martinezen kantak entzuteko.

■ "1.000 baietz" izeneko kanpainari ekin dio Elgoibarko Izarrak abenduan bazkide berriak lortzeko nahian. Abendutik urtarilerara bitartean gazteen artean bazkide berriak egitea du helburu kanpainak.

■ **Xabier Lizaso** oriotar pianojoleak aparteko piano kontzertua eskaini zuen Herriko Antzokian Musika eta Dantza Fundazioak antolatuta.

■ **Egunkariaren tonbolan 100.000 ptako bi sari** tokatu dira abenduan Elgoibarren. Bat Karobi tabernako Edu Urbiolari eta bestea Fermin Arce-ri.

■ Aurten lehen aldiz auzoetan jarri ditu Udalak **Gabonetako argiak**. Hilaren 13an piztu zituzten lehen aldiz herri osoko argiak.

PROTAGONISTAK



□ **Luziano** pintore elgoibartarrak Euskal Herriko paisaia tradizionalari buruzko margo erakusketa burutu zuen hilaren 1etik 17ra bitartean. Egiten ari diren eraikin modernoen aurrean euskal paisaiaren erreinbindikazioa da Santa Klaran jaiotako margolariaren lana.



□ **Ehun Kilok** bere bigarren diska kaleratu zuen, "Esaiek". Lehen diska 1993. urtean, Durangoko azokan aurkeztu zuten eta bere izenburua "Euli artean" zen.

□ **Patxi Arriolak** Euskadiko Oilagorren txapela lortu zuen hilaren hasieran. Ehiza Xehean deritzon modalitatean, berriz, Espainiako Txapelketa jokatu zuen hilaren 16an Jumilla herrian (Murcia) eta hirugarren geratu zen.

□ **Maite Rementeriak**, BARRENEko maketatzailerak irabazi zuen Udalak antolatutako Elgoibarko 650. urteurrenaren logotipo lehiaketa. Sari modura 40.000 pta irabazi zituen Maitek.

Tik-Tak
ONDO PASA GABON JAIXAK
ELGOIBAR

Talantza
GIPE
I.P.E. 2.044 GESTOREA
GESTIO INMOBILIARIOA
INMOBILIARIAKO PROFESIOALEN EUROPAR KONFEDERAKUNDEAREN KIDE
San Bartolome 2, behea - ☎ 74 34 65 - ELGOIBAR

ERREZABAL
Ondo pasa Gabonak!
taberna
Ermuaran-bide. Tel 74 26 33. ELGOIBAR

Kk g
ILEAPAINDEGIA
Zorionak eta Urte Berri On!
☎ 74 00 69
San Frantzisko, 40 - 3 - B

Bertso Jaialdia

elgoibarren

ANDONI EGAÑA

SEBASTIAN LIZASO

JON SARASUA

ANGEL M. PEÑAGARIKANO

**HERRIKO
ANTZOKIAN**

10,30etan

**Abenduak 30
LARUNBATA**

ANTOLATZAILEA:
ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



LAGUNTAILEAK:
ELGOIBARKO UDALA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



Flori Maeso

Glass Controlekoa

● **Zein da mediorik onena leiho bat isolatzeko?** ▶ Garrantzitsuena kanpokoarekin harremanetan dagoen guztia isolatzea da.

● **Zer eskatzen du bezeroak?** ▶ Soluzioak, arazoei irtenbideak ematea.

● **Nondik ekartzen duzue materiala?** ▶ Europatik.

● **Kristal argiak ala ilunak?** ▶ Ahumatuak.

● **Zerekin garbitu behar dira kristalak?** ▶ Onena metodu tradizionala da. Baina hobe kristalari galdetzea.

● **Zenbat leiho ditu zure etxeak?** ▶ Sei.

● **Lehio asko apurtu dituzu?** ▶ Ez, sekula ez dut leiho bat apurtu.

● **Zer isolatuko zenuke?** ▶ Gerrateak, goseteak.

● **Superstiziosoa zara?** ▶ Ez, gainera katu beltz bat daukat etxean.

● **Ispiluan asko begiratzen zara?**

▶ Gustatzen zait ispiluan begiratzea, baina ez naiz larregi begiratzen.

● **Zer gustatuko litzaizuke leihotik ikustea?**

▶ Udazkeneko paisaia eder bat.

● **Zer ikusten da zure logelako leihotik?**

▶ Ezer ere ez, patiora ematen baitu.

● **Negurako kolore bat?**

▶ Neguan kolore ilunetara jotzen dut, isolatu egiten bainaute.

● **Zenbat ordu egiten dituzu lo?**

▶ Uste dut nahikoa lo egiten dudala, 8-9 ordu.

● **Hasi al zara Gabonetako opariak erosten?** ▶ Ez.

● **Opariak egin ala jaso?** ▶ Nahiago dut oparitzea.

● **Loterian diru asko jokatu duzu?**

▶ Beste urte batzuekin gonbaratuz bai, aurreko urteetan ez baitut jokatu. Dena den, ez dut diru asko jokatu. Ez naiz zaletua.

● **Zure lanaren alderik txarrena?**

▶ Ez dakit, ez baitiot inoiz galdera hori neure buruari planteiatu.

● **Eta zailena?**

▶ Pertsonekin telefonoaren bidez harremana mantendu beharra.

● **Zerk kezkatzen zaitu?** ▶ Gauza askok, maila pertsonalean osasunak, eta orokorrean, goseak, miseriak...

**MAITE IRIONDO**

GABON ETA EGUBERRIA

DOINUA:

Amodioaren minak

Zuhaitzen beso malkorretatik eroria da horria.

Goroldioak laino matutsen urez ase egarria.

Baso-zelaiaren neguko loa bizitasunez urria...

baina ez daiteke hotzez agortu biziaren iturria.

Haur jaio-berri baten jantziez dator eguzki berria.

Negu -udaberri, uda- udazken iragaten diren ahala, sagarren gisa urteak ere ximeldua du azala.

Argi berriak ilunetan du bere hastapen apala.

Itzala argi bilakatzen da, ondoren berriz itzala.

Neguan hasten baita urtea eguna gaeuz bezala.

**JON BARANDIARAN**

SYSTEM
MANTENUA ETA MANIPULAZIOA
LIKIDOEN FILTRAZIOA

Ibaitarte Polig. Ind. B-2-3 Pab. San Antolin Auzoa. ELGOIBAR
TEL: (943) 74 16 62 - 74 16 66 - P.K. 159 - FAX: 74 09 50

TXARRIDUNA
PURINA BANATZAILEA

Animalientzat eta nekazaritzarako behar duzun guztia daukagu. Zatoz!!

P. Muguruza, 1. ☎ 74 15 97



ELGOIBARKO OSASUN GIDA

PODOLOGOA

- Iñaki RiberoSan Bartolome, 28Tel.: 74 32 90

ODONTOLOGIA

- Gerardo NatenzonSanta Ana, 20Tel.: 74 36 35
- Agustin SanchezAntonio Arrillaga, 8Tel.: 74 37 47
- Antton IzagirreSan Frantzisko, 31Tel.: 74 19 52
- Luis IrigoyenRosario, 8Tel.: 74 36 79

BIHOTZA ETA BIRIKAK

- J. EtxeberriaSanta Ana, 1Tel.: 74 22 75

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

AKUPUNTURA

- Nozki Belardenda
Jose Maria GorritxoForuen Enparantza, 6Tel.: 74 18 61

NATUROPATIA

- Kemen Belardenda
Mari Sol SaezSan Bartolome, 25Tel.: 74 40 31
- Nozki Belardenda
Jose Maria Gorritxo Foruen Enparantza, 6Tel.: 74 18 61

ATSak

- Marta Diego ArrietaErretxindi, 2Tel.: 74 02 33

Zubi Ondoko etxea bota zuten joan den ostiralean

Joan den ostiralean bota zuten Zubi Ondoko etxea. Ikusmira handia egon zen eta dexente pertsona hurreratu zen bertara Elgoibarren erabat errotua zegoen eraikuntzaren eraisketaren lekuko izateko asmoz.

Aspaldiko proiektua aurrera eramateko ezinbestekoa izan da aipatu eraikuntza botatzea eta hasiera batean urrian egin behar bazen ere, azkenean abendura arte atzeratu da. Orain, bidegurutzean errotonda antzeko bat egingo da.

Rotonda berri horri esker, Markinara joateko sarrera hobetu egingo da eta norabidea aldatzeko aukera izango da, besteak beste. Obren finantziazioa Udalaren, Diputazioaren eta Irati Promotoraren esku egongo da, aurrekontuaren zenbatekoa 125 milioikoa izanik.

Sei hilabeteko obrak

Rotonda ezezik bestelako aldaketarik ere izango da. Esate baterako,

guztionez ezaguna den lur azpiko pasabidea berri eta luzatu egingo da. Gaur egun 10 metro baditu, obrak amaitzean 27 izango ditu eta zabaleran, 2,20 metro izatetik 3,60 m.ra pasako da. Hasiera batean errepide gainetik beste pasabide bat eraiki nahi zen oinezkoentzat baina dirudienez mementuz ez da horrelakorik egingo lur azpikoarekin nahikoa baita. Obrak *Moyua* enpresari eman zaizkio eta gutxi gora-behera sei hilabeteko iraupena izango dute. Denbora horretan, logikoki, zenbait arazo sortuko dira bai oinezkonetzat bai eta trafikoarentzat ere. Hori dela eta, segurtasuna bermatzeko beharrezko neurriak hartuko dira.



■ ■ Guztiontzat ezaguna zen Zubi Ondoko etxea bota zuten pasa den ostiralean.

Talleres ALBE ▼▼▼

KANPO ETA BARRUEN REKTIKATUAK - PLANEATUAK
CRUSHING BIDEZ PERFILEN PLANEATUAK
BROTXATUAK - MAKINARIA KONPONKETA

Trenbide kalea, 21. Tel. 74 32 86. ELGOIBAR (GIPUZKOA)

*Gabon Zoriontsuak!
eta Urte berri On!*

TEXTIL HOGAR LAGUNAK

ESKAINZA

Oihalgintzan etxerako behar duzun guztia daukagu.

ZATOZ ETA IKUSIKO DUZU!

*Ondo pasa Gabonak!
eta Urte Berri On!*

Olaso kalea 54

Tel. 74 44 57

ELGOIBAR

PUBLIZITATEA

*Gabonak heldu eta
hortxe bapatean
urte berria dugu
kolpeka atean.
Zoriontsuak izan
famili artean
mugaz gainetik lotzen
gaituen katean,
lankide izan gaitzen
datorren urtean.*

Zorionak

HERRIKO INSTITUTUAren izenean.



Aita Agirre EskolaK (II)

- Estilo neoklasikoaren hastape-nak jarraituz eraiki ziren Eskola Publikoak, oreka, simetria eta monumentaltasun sentsazioa transmitituz. Baina, hala ere, orijinala da, baoguneen erabileran, harmorekiko ate eta leiho ugarien nagusitasuna ematen baita, eskolako xedera ondo egokituz. Baoguneetan ere, solairuen artean, dintela eta arku karpanelen arteko txandaketa ematen da, erritmoa aldatuz.
- Ate nagusiaren ezker aldean, Fray Francisco Agirre (1863-1941) Elgoibarko seme kuttunaren plaka bat dago horman itsatsia. Eskolak eta enparantzak misiolari honen abizena daramate.
- Eskola eraikitzeko obren enkantea 1890. urteko abenduaren 31n egin zen eta erabateko esleipena 1891.eko urtarrilaren 5ean. Enkantera Miguel Loiola bakarrik aurkeztu zen eta berari eman zitzaion obra. Garai hartan

alkatea Mariano Muguruza zen.

- 1892-93. a izan zen lehen ikas-turtea eskola berrian.
- Lehen garbitzailea Florentina Zubiaurre anderea izan zen. Bere lanaren truke, eskolako etxebizitza batean bizitzeko aukera eman zitzaion berak hala eskatuta. Eskola berriaren hasieran bi maisuren izenak aipatzen dira: Pedro Martin Gorostiza eta Garcia. Martin Gorostiza maisu nagusia zen eta berari eskaini zitzaion eskolako bigarren etxebizitza.
- Udaletzeko paperetan ez da ageri arkitektoa nor izan zen. Halere, urte batzuk lehenago 1866.eko ekainaren 24an Rafael Rekalde eta Amichis jaunak alkateari zuzenduriko eskutitz batean, Eskola Publiketako proiektu-planoa egiten sei egun eman zituela eta ordainetan 300 erreal bidaltzea eskatu zuen.

PELLO ARRIETA



Jesus Astigarraga "Txusko" (1950-1993)



- 1950ean jaio zen.
- Gazte zenetik natura izugarri maite zuen. Eskolara baino mendira joatea gustatzen zitzaion, animaliak harrapatu eta etxera eramateko.
- 16 urte zituela ikasketak utzi eta bere aita Tomasekin hasi zen lanean "alkilerrean", aitarekin jaiotako tradizioari jarraituz.
- 1973an ezkondu eta hiru seme izan zituen.
- Pertsona alaia eta bizi-pozez beterikoa, aita bezain ezaguna zen. "Txusko" deitzen zion jende guztiak, orain semeak jaso duelarik aitaren gaitzizena.
- Itsasoa izugarri gogoko zuen eta askotan joaten zen ur azpian ibiltzera. Itsasoko Gurutze Gorriarekin ere lan egin zuen, kide modura.
- Beste batzurekin batera, orain bost bat urte Ur-Bizi urazpiko elkatea osatu zuen, eta Olaizaga kiroldegian murgilketa ikastaroak eman zituen.
- 1993ko ekainaren 6an hil zen. Gaur egun emazteak jarraitzen du dendarekin.



Jose Ignacio Ullacia Echeverria

ARozTEGIA- OBRAK- IGELTSARITZA

Santa Klara, 10-1
Tel: 74 05 47

Etxea: Santa Ana, 30
Tel: 74 04 68

MOTZAK

Klub Ibai

Oraingo honetan hiru domina eskuratu dituzte Ibaiko judokek. Eskolarteko Gipuzkoako Txapelketan Esther Idiakezek eta Egoitz Morak urrezko domina lortu zuten, eta Xabi Gonzalezek zilarrezkoa. Lorpen honi esker Donostian izango den Gipuzkoako Txapelketaren finalerako txartela ziurtatu ahal izango dute.

Kiroldegiaren oharra

Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean Kiroldegia itxita egongo da eta abenduaren 23tik urtarrilaren 8ra bitartean sauna eta maisaia goizez bakarrik egongo dira.

Igerilarien emaitzak

Olaizaga Igeriketa taldekoek joan den asteburuan Bergarako igerilekuan izan zen txapelketan honako emaitza hauek lortu zituzten: 50 m. krolean, Andres Egea 51"23, Andoni Schmidt 50"32, Josu Aizpuru 47"84, Iñigo Canales 48"35 eta Asier Aju-riagerra 42"50. 100 m. krolean, berriz, Aingeru Osoro 1'29"09, Julen Arrillaga 1'30"13, Julen San Juan 1'41'41, Iñigo Otero 1'37"76 eta Andoni Mendez 1'49"73.

Morkaikoren irteerak

Hilaren 23an, larunbata, jaiotza ipintzeko Morkaiko mendira irteera antolatu du mendizale elkarteak. Irteera goizeko 9etan izango da Plaza Handitik. Bestetik, urtero bezala, Gabon Zahar egunean, hilak 31, Aitzgorrira mendi irteera izango da. Goizeko 7,30etan abiatuko dira mendirantz Plaza Handitik.



"Oilagorren txapelketa inportantiaua da neretzat"

■ **Zenbat titulu aurten?** - Ehiza txikixan 5 txapelketatan eon naiz. San Migelekuan bigarren izan nitzan. Zonakuan bigarren ere bai. Gipuzkuakuan eta Euskadikuan lenengua eta Espainiako semifinalian, Manresan, lenengua ere bai. Espainiako finalian, Jumillan, hirugarren ein dot. Eta oilagorretan Euskadiko lenena.

■ **Preparaziorik?** - Astebete lehenao Vinaroz-eko lagun baten etxian eon nitzan, futbolistak bezela, "kontzentrata". Eguneroko ehizan, txakurrakin, serixo entrenatzen, Espainiako Txapelketia gogorra da eta.

■ **Zer nolako maila ikusi duzu?** - Haundixa, baina suertia ere bada. Irabazliak txiripaz irabazi zaban. Kontrolera zetorrela eper bando bat altzau eta bi behera! Bigarren geratu zana, Cloquell valentzianua, haura bai dala ona. Jende guztiak haura txapeldun zala uste zabanian bestiak bi eper gehixo bota zitxun "dobletia" edo "karanbola" einez, hau da, tiro bakarrakin bi txori hiltzen. Orduan bai hartu zabala Cloquell-ek disgustua! Kontrola itxi baino ordu erdi lehenao ni nixen txapeldun, hiru eper eta erbi batekin, baina bestiek lau eper bota zaben eta zelan eperak puntuazio gehixoa daken...



■ **Eta txakurrak zer garrantzi?** - Ehiza txikixan txakurrak ez daka oilagorretan beste merito. Eperrak paraje garbixan dao. Eperrak altzau eitxen dia normalian txakurrak topatzeko biharrik gabe; suerte kontua da. Gainera lagunak txakurrakin, Braco aleman batekin ibili bihar izan nitzan, ze nere txakurrari hanka azpixak gastau ein jakozen hango lurra harriz beteta daualako.

■ **Urtarrilean, oilagorren Espainiako txapelketa.** - Leizaranen izango da eta irabazteko esperantzak, danak! Ehiza txikixan baino aukera gehixo dakat, beti ibili izan naiz eta oilagorretan. Gainera neretzat inportantiaua da, ehiztari batentzako konpletuua da.

■ **Bitxikeriarik?** - Ehiza txikixan sarixak kristonak dia. Irabazliantzat Lada bat edo bestela ixa bi milioi pta., eskopetia eta bi kilo zilar zaozen. Bigarrenantzako eskopetia, zilarra eta mira teleskopikua; eta neretzat, zilar kilua, mira teleskopikua, ardua eta Calasparras-eko arroza, oso eza-guna ei da eta.

■ **Urteko balantzea, 1etik 10era?** - Hamarrekoa.

- Adina: 31 urte
- Gabonak gogoko? Ez gehixegi
- Zenbat eskopeta dituzu? Hiru
- Beste kirolrik? Ez



Salvador Celaya
ITURGINTZA

BILTEGI ETA BAINUGINTZA
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK

Errosario 22. Tel: 74 04 94 ELGOIBAR



EGONDO, s.a.l.

METALEZKO ERAIKUNTZAK
KALDERERIA LANAK OROKORREAN

Olasope kalea 3. blokea ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08

Bidean emandako bizia
denboran utzitako hazia
inolaz ere ez da galdua
denak apur bat emanaz
gutxi batzuk
dena eman ez dezaten
bakarrik egon
ez daitezten.

Sistema onartzea
nortasuna galtzea da
Sisteman jarraitzea
gurea galtzea. Ez litzateke hobe
geroa lantzea?

1996an
EUTSI GOGOR BORROKARI!



**EUSKAL HERRIA
askatu!**

HERRI BATASUNA




KENSINGTON

**Eskola honetan ingelesa eta alemana
irakasten dugunon izenean**

**Gabon
Zoriontsuak
igaro
eta
Urte Berri On!**



 GIPUZKOAKO HIZKUNTZ IRAKAS
ELKARTEKO BAZKIDE

P. Muguruza 8. ELGOIBAR ☎ **74 02 36**

PUBLIZITATEA

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak

Enbutidoak

Baserriko ogia

Boileria

Ondo pasa jaiak!!

San Bartolome 6 - Bernardo Ecenarro 1
ELGOIBAR ☎ 74 33 92



MAKINARIA KONPONTZEN ESPEZIALISTAK

Mandrinadorean planoekin egindako lanak

Fresadora, Taladroa, Tornoa eta Errektifikadora



*Gabon jai zoriontsuak
elgoibartar guztioi!*

Santa Klara, 40 - Tel 74 07 60 - ELGOIBAR




MANCISIDOR HERMANOS, C.B.

Mekanizatuak
Mandrinatuak

Planu bidezko piezen fabrikazioa
eta mekanizazioa orokorrean.

☎ 74 30 55
FAX: 74 37 77
ELGOIBAR



LOS TABERNA

*Urtea ondo lukatu
eta
Berria hobeto hasi*

Upaitza Zaharra kalea, 4 % 74 03 87



Errosario 12. Tel: 74 16 48

32 talde arituko dira Gabonetako Kuadrila arteko Txapelketan

Gabonetako Kuadrilarteko Txapelketaren bosgarren edizioa burutuko da hilaren 26tik 30era bitartean. Aurten 32 taldek eman du izena, iaz baino bi gehiagok. Izena eman duten ekipoen artean, neskaz bakarrik osatutako talde bat dago, eta gainontzeko taldeetan tarteka badira neskak ere. Bost kirol ezberdinetan aritu beharko dira taldeak; guztiek hartu behar dute parte kirol guztietan. Eraitzen araberaren puntuazio bat izango du talde bakoitzak eta hortik aterako da irabazlea.

Egunez eta gauzez

Areto futbola, saskibaloia, pala, krosa eta txirrindularitza dira

burutu beharreko kirolak. Saskibaloia, futbola eta pala goizeko 11etan hasiko dira eta egun osoz luzatuko dira, egunez zein gauzez. Saskibaloia eta futbol finalak hilaren 30ean jokatuko dira, Kiroldegian, arratsaldeko 3etatik aurrera.

Sariak

Kirol bakoitzeko txapelak bai eta sailkapen orokorrean 2. eta 3. postua eskuratzen duten taldeek ere, oroigarria jasoko dute. Saria jasoko dute baita ere, talderik deportiboenak eta txapelketako jokalaririk onenak. Txapelketa irabazten duen taldeak 50.000 pta.ko saria jasoko du bai eta trofeoa ere.

EGUTEGIA

26, asteartea

11,00 Pala (Ikastolan)

11,00 Saskibaloia (Kiroldegian)

27, asteazkena

11,00 Areto futbola (Kiroldegian)

19,00 Krosa-erreleboak (Plaza Handian)

28, osteguna

Arratsaldean, saskibaloia (finalerdiak)

19,00 Txirrindularitza

(Sigmako zubia-Erretxindi)

29, ostirala

Arratsaldean, Areto futbola (finalerdiak)

30, larunbata

15,00 Areto futbola (3. eta 4. postuak)

16,00 Saskibaloia (3. eta 4. postuak)

17,00 Saskibaloia (finala)

18,00 Areto futbola (finala)

19,00 Sari banaketa

(Kiroldegian)

KIROL EMAITZAK

Areto Futbola

Elgoibar 1 - Astillero 3 (1. maila)

Elgoibar 6 - Ryder 3 (2. maila)

Eskubaloia

Bergara 15 - Elgoibar 17 (Kad. mutilak)

Elgoibar 22 - Hondarribi 22 (Jubenilak)

Txankakua Elg. 23 - Leizaran 22 (Seniorrak)

Futbitoa

Orbela 4 - ebel Urbi 1

Sanroketarrak 8 - Ikus optika 1

Kosakos 1 - Aldavas 4

Roke 1 - Uda Berri 2

Ametsa 1 - S. Bragas 0

Saskibaloia

Errenteri 81 - Txankakua 49

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 23

12,00 Elgoibar - Almen (Kadeteak)

13,45 Urki B - Lagun Onak (2. jub.)

15,30 Gazteak - Lazkao (2. jubenilak)

17,15 Elgoibar - Ordizia (Jubenilak)

Igandea, 24

10,00 S.D. Eibar - Dunboa (1. erreg.)

12,00 Elgoibar - Sto. Tomas Lizeoa (Inf.)

13,45 Urki A - Arrasate (2. jubenilak)

Pilota, Ikastolan 22,00etan

V. San Anton Esku pilota Txapelketa

Leiho isolatzaileen banatzaile ofiziala

Gabon Jai Zoriontsuak!

ARMAIRU ENPOTRATUAK

SANTA ANA KALEA, 18 BEHEA - 20 870 ELGOIBAR - TEL. 74 43 83

PUBLIZITATEA

BERUNIK GABEKO GASOLINA • MICHELIN AGENTZIA • GURPIL NEURKETA
PRESIOZKO GARBIKETA • GARBIKETA NEUMATIKOA • ASPIRAGAILUA

REZOLA GASOLINDEGIA

Zorionak eta Urte Berri On!



*1996an poza eta
alaitsuma opa dizuegu
herritar guztioi.
Zorionak!*

San Frantzisko 21 - Tel 74 26 52 -

Koldo Lizarralde Madalari buruzko lana argitaratu du

Iragan den ostiralean izan zen Kultur Etxeko hitzaldi gelan Koldo Lizarralde etonografo eta historialariaren azken lanaren aurkezpen ofiziala. Guillermo Garate alkatea ezezik, Etniker Ikerketa taldeko Antxon Agirre etnografoa ere egon zen ekitaldian. Koldo Lizarralderen liburuari sarrera historiko mardula egin zion Agirrek.

San Lazaro ospitala eta ermitaren jatorri historikoari buruz Agirrek azaldu zuenez, "gaixotasun kutsakorren zat ziren ospitalak eta bestelako gaixotasunentzako ospitalak zeuden. San Lazaro leprak jota hil zen eta hortik lepradunei lazareto deitzea". Elgoibarren zegoen

ermitan eta ospitalean lepradunek izaten zuten lekua.

Koldo Lizarralderen liburuak ermitaren historiari buruzko datuak biltzen ditu. Egilearen esanetan "Elgoibar sortu baino 100 urte lehenago ermita bazegoen". Etapa ezberdinak izan ditu eraikuntzak. "1556an lazaretoentzako lekua zela aipatzen da zenbait dokumentutan". XVI. mendean hiru ospitale zeudela Elgoibarren adierazi zuen Lizarralde. 1869an Karitatearen alabek hartu zuten ospitalaren ardura. "Nesken eskola eta eskola mistoa ere izan zen ondoren eta 1956. bota egin zuten". Berria 1981an eraiki zen.



■ ■ Madalari buruzko liburuari herriko liburu dendetan dago salgai.

Jasone Osoro Errenteria Hiriako irabazlea

Jasone Osoro, BARRENeke kazetari denak, Ereintza Elkarteak antolatutako Errenteria Hiri Ipuin Lehiaketa irabazi du 25 urtetik beherakoen artean. Juan Garzia eta Iñaki Aldekoak osatutako epaimahaiak Jasonek idatzitako "Hondarra" ipuinari aipatu saria ematea erabaki zuen. Ipuinean, neskatala batek argazkilaritza batekin bizi izandako esperientzia gogoratzen du.

Zinea Ikastolan

Herriko haur guztiei zuzendua, zazpi pelikula emango dira Ikastolan, euskaraz, honako egun hauekin: hilak 26, 27, 28 eta 29, eta urtarrilak 2, 3 eta 4. Emankizuna arratsaldeko 4,30etan hasiko da.

Gabon kontzertua

Musikeskolako ikasleek eta Udal Txistulari Bandako kideek Gabonetako kontzertua eskainiko dute gaur, hilak 22, arratsaldeko 7,30etan hasita. Gazteen bandak, perkusio laukoteak, abesbatzak, akordeoi taldeak eta azkenik, Udal Txistulari Taldeak, musikeskolako ikasleek eta dantza eskolako ikasleek hartuko dute parte.



Gabon Zaharra berezia al da?

- 1- Gabon Zahar eguna berezia al da?
- 2- Nola ematen diozu ongietorria urte berriari?
- 3- Kalera irteten al zara gauean?
- 4- Ligatzea errazagoa al da?
- 5- Zer eskatuko diozu urte berriari?




Irune Zubiaurre

- 1- Bai, familia elkartzeko gara, lagunekin urten...
- 2- Telebisiuan entzuten ditzugu kanpaiak eta bakoitzak preparata eukitzen ditxu mahats aliak, kanpai bakoitzeko bana.
- 3- Bai, 12,30ak aldera urtetzen gera eta aguantatu arte.
- 4- Ni juergara urtetzen naiz... gero, zeozer urtetzen bada, bale, baina ligatzeko asmuakin ez naiz urtetzen. Hori bai, jendia animata egoten da, lotsak galtzen dia eta erretzaua da.
- 5- Osasuna danentzat eta dirua partitza bihar dan bezela.



Ane Zubia

- 1- Bueno, Gabonak orokorrin bereziak dia.
- 2- Telebistan kanpaiak entzun eta mahatsa jaten dugu, txanpaina edan...
- 3- Orain arte ez baina aurtentzen espero dot.
- 4- Ez dakitx. Egixa da urte berri zorian eta bi musu ematian aitzakixakin erretzaua izan leikela, baina...
- 5- Osasuna, dirua eta maitasuna.



Iosu Garcia

- 1- Bai, zeozer diferentia bada, familia elkartzeko gara...
- 2- Balkoira urten eta Parrokixako kanpaiak entzuten ditzugu urtiari ongietorria emateko.
- 3- Oin arte ez naiz urten kalera sekula gabian.
- 4- Urten izan banintz erantzungo nuke baina ez dakitx jendia ze asmokin urtetzen dan eta erretza dan ala ez.
- 5- Estudixuak ondo jutia eta familia oin bezela, ondo konpontzia.



Iosu Agirregomezkorta

- 1- Neretzat Gabonak izaten dia espezialak, egun bat edo bestia desberdinu be.
- 2- Telebisiuan entzuten ditzugu kanpaiak. Mahatsa jaten saiatzen gera baina ixa beti bat edo bat barrezka hasten da eta ezin izaten dau inork aguantau.
- 3- Ez naiz urtetzen. Base-rrixan geratzen naiz eta demaseko sobremesia eitzen dou, kantau, kartetan ibili...
- 4- Zelan ez naizen oin arte sekula urten...
- 5- Estudixuetan oin bezain ondo jutia eta munduan gauzak mejoratzia.



Orbea

Kafetegia

*Zorionak
eta
Urte Berri*

San Frantzisko 6, Tel: 74 31 17

Salerosketak

ZIBRO KAMIN markako estufa bat saltzen dut. Berria.
☎ 19 16 39

DERBI 75 C.C. trukatua salgai. Egoera oso onean.
☎ 15 04 41

NINTENDO CONSOLA saltzen dut. Bi mando eta Shadow Warriors-a. 5.000 pta.
☎ 74 35 64 Soto

NISSAN PATROLA SALGAI: 6 zilindro, gurpil zabalak, 92. urtekoa. BI-BK. 1.850.000 pta.
☎ 74 07 04 Jon (17,00-20,00 deitu)

ORDENAGAILU BAT saltzen dut: IBM AT 286
☎ 74 19 21 Maite

ERREPIDEKO BIZIKLETA bat saltzen dut egoera oso onean. Berria.
☎ 74 01 84

Bestelakoak

Abenduaren 15ean Ermuaranbide kalean urrezko belarritako bat aurkitu nuen eta Udaltzaingora eraman nuen.

Etxebizitzak

Mendaron ETXEBIZITZA BAT SALGAI. Buztinalde plazan. Amueblatua.
☎ 77 05 90 Angel Mari

Pisu bat KONPARTITU nahi nuke Elgoibarren
☎ 74 14 96 Izaskun

BUHARDILA BAT saltzen da Eibarren. Erreformatua. Prezio interesgarria.
☎ 10 11 52 Fernan

ETXE BAT SALTZEN DA Errosario kalean.
☎ 74 37 68

ETXE BAT SALTZEN da DEBAn. Amueblatua. Hondartzatik gertu.
☎ 74 22 83

SANTA KLARAN PISU BAT SALTZEN dut. 24. zenbakia 5B.
☎ 74 32 98

PISU BAT ALOKATUKO NUKE Elgoibarren.
☎ 74 21 25 Antxon Salegi

ETXEBIZITZA BAT saltzen dut SORALUZEN.
☎ 74 34 05 / 74 34 06
M. Carmen edo Aurora

PISU BAT ALOKATU NAHI DUT neska batekin Elgoibarren edo Eibarren.
☎ 74 16 30 Maria Oliva
Goizez 9,30-13,30

Lana

KAMARERA BAT behar da. Sukaldaritza badaki hobe.
☎ 74 28 42

Emakume helduak ETXEKO LANAK EDO PERTSONA NAGUSIAK zainduko litzuzke.
☎ 74 32 51 Pili

EDERGINTZAN LAN EGITEKO prest nago. Esperientzia daukat.
☎ 74 29 56 Gema

TITULUDUN ERIZAINA, etxeetarako erizain edo praktikante zerbitzuak egiteko prest dago.
☎ 74 02 33 Marta Diego (Erizain diplomatua)

Garajeak

GARAJE ITXI BAT salgai Santa Ana 46an.
☎ 58 40 24
Gauzez deitzea hobe

GARAJE ITXI BAT saltzen da King-kong-en.
☎ 74 06 22

GARAJE BAT ALOKATZEN dut Pista beltzean. Marraduna.
☎ 74 21 64

GARAJE ITXIA alokatzen dut San Roken, Telefonika parean.
☎ 74 21 18 (9etatik aurrera)

Partikularrak

Injineritza eta magisteritza tituludunak KLASA PARTIKULARRAK ematen ditu.
☎ 74 01 48 Alazne

MARRAZKETA LINEAL ETA DIEDRIKOKO klaseak ematen ditut.
☎ 74 43 98 / 74 34 01 Iñaki


Bidaietako nahiz etxeko asistentzietarako:

GRUAS PANA



Deba kalea, 13 • 20.870 ELGOIBAR ☎ 74 38 38 - Fax 74 43 32 Tel. mobila: 908 77 06 23

*Gabon jai hauetan ere
zuekin gaude.
Zorionak eta Urte Berri On!*



**Zorionak
eta
Urte Berri on!**

22 OSTIRALA

17,30-20,30 **GABONETAKO JAIOTZAREN INAUGURAZIOA**

✓ Leku Ederreko lokalean

19,00 **GABON KONTZERTUA**

✓ Herriko Antzokian

22,15 **ZINEA**

"Mi Familia"

23 LARUNBATA

09,00 **MORKAIKORA IRTEERA JAIOTZA IPINTZERA**

✓ Plaza Handitik
Antolatzailea: Morkaiko

11,30 **ZAZPIKIREN BILERA**

✓ Zazpikiren lokalean

19,30-22,15 **ZINEA**

"Mi Familia"

20,00 **PARROKI ABESBATZAREN KONTZERTUA**

✓ Parrokian

24 IGANDEA

10,00 **DULTZAINEROEN KALEJIRA**

11,00 **OLENTZEROREN KALEJIRA**

✓ Irteera Plaza Handitik
Kalejira ondoren eskutitzak jaso,
goxokiak banatu eta dantza saioa
Plaza Handian.

12,30 **BANDAREN GABON KONTZERTUA**

✓ Herriko Antzokian

15,30 **OLENTZEROREN KALEJIRA**

Antolatzailea: Gestorak

16,30 **ZINEA**

"Niño rico"

18,45 **BANDAREN GABON KALEJIRA**

19,30 **ZINEA**

"Mi familia"

25 ASTELEHENA

19,30-22,15 **ZINEA**

"Mi Familia"

26 ASTEARTEA

11,00 **HANKALUZE IKASTAROA**

✓ Taupadaren egoitzan (San Roke 1)
Hilaren 29ra arte

Antolatzailea: Taupada eta Kukuma

16,30 **ZINEA** Ikastolan

"Txit aparta"

22,00 **ZINEA**

"Mi Familia"

27 ASTEAZKENA

16,30 **ZINEA** Ikastolan

"Willow"

20,00 **INTSUMITUEN PLATAFORMAREN BILERA**

✓ Kultur Etxean

28 OSTEGUNA

11,00 **PAILAZOAK**

"Takolo, Pirrutz eta Porrotx"

✓ Herriko Antzokian
Sarrera: 100 pta.

16,30 **ZINEA** Ikastolan

"Eguzkiaren erregea"

29 OSTIRALA

16,30 **ZINEA** Ikastolan

"Printsesa ezkongai"

22,15 **ZINEA**

"Nueve meses"

30 LARUNBATA

09,00 **GABON ZAHAR FERIA**

19,30 **ZINEA**

"Nueve meses"

22,30 **BERTSO JAIALDIA**

Bertsolariak: Andoni Egaña,
Sebastian Lizaso, Jon Sarasua eta
Angel Mari Peñagarikano.

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

31 IGANDEA

7,30 **AITZGORRIRA IRTEERA**

✓ Plaza Handitik
Antolatzailea: Morkaiko

16,30 **ZINEA**

"Niño rico"

19,30 **ZINEA**

"Nueve meses"

1 ASTELEHENA

22,15 **ZINEA**

"Nueve meses"

2 ASTEARTEA

16,30 **ZINEA** Ikastolan

Ostegunera arte egunero pelikula
bat emango da.

22,00 **ZINEA**

"Nueve meses"

3 ASTEAZKENA

11,00 **TAUPADAREKIN "TERRIBILIS DOKTOREA"**

✓ Udal liburutegian

5 OSTIRALA

18,00 **ERREGEEN KABALGATA**


✓ Plaza Handian
Antolatzailea: Katekesia

txandak

FARMAZIAK:

23, larunbata: Ormazabal
24, igandea: Ormazabal
25, astelehena: Ormazabal
26, asteartea: Etxeberria
27, asteazkena: Etxeberria
28, osteguna: Etxeberria
29, ostirala: Etxeberria
30, larunbata: Bidasolo
31, igandea: Bidasolo
1, astelehena: Bidasolo

DEBA BEHEA



ELGOIBAR



MUTRIKU

**Zorionak
eta
Urte Berri On!**



MENDARO

INDUSTRIALDEAK	KAPITALA	POLIGONOA	M ² EDIFIK.	M ² TERREN. URBANIZ.	KOMENTARIOA
ELGOIBAR	320.000	Ibaitarte	12.000		% 100a betea
MENDARO	350.000	Mendarozabal	12.000		% 100a betea
MUTRIKU	470.000	Mijoa		17.000	Epe laburrean eraiketze lanak hasiko dituzte.
EIBAR	35.000	Azitain		69.000	Zati bat lur urbanizatuaren salmenta. Beste zati bat pabilioien eraikitzea.

H E L B I D E A K

ELGOIBAR: IBAITARTE INDUSTRIALDEA, 5

Tel. 74 11 26

Faxa: 74 41 14

MENDARO: MENDARAZABAL INDUSTRIALDEA

Tel. 75 61 11

Faxa: 75 60 01

MUTRIKU: MIJOA INDUSTRIALDEA

Tel. 74 11 26

Faxa: 74 41 14



DEKORAZIOA

Errosario, 15 behea. ELGOIBAR
TEL: 74 40 55 - 74 40 19

Zorionak eta Urte Berri On!

GURE ZERBITZUAK:

- Proiektu eta erreformak (etxebizitzak, lokal komertzialak)
- Gremio ezberdinen koordinazioa
- Obra zuzendaritza

SALMENTA ETA BANAKETA:

- Sukalde altzariak eta elektragailuak
- Neurria egindako altzariak
- Dekoraziorako artikuluak
- altzari auxiliarrak



EIBAR

OSASUNDEGIA

Urkizu Pasealekua, 11.
(Orbeako Dorrea, lehenengo solairua).

Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04

EIBAR

- 1- Alergiologia
- 2- Kardiologia
- 3- Zirugia
- 4- Zirugia maxilo faziala
- 5- Dietetika eta nutrizioa
- 6- Dermatologia
- 7- Ginekologia
- 8- Laborategia
- 9- Barne medizina
- 10- Ortodontzia
- 11- Foniatria
- 12- Otorrinolaringologia
- 13- Pediatria
- 14- Sikiatria
- 15- Radiologia
- 16- Traumatologia
- 17- Urologia